GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK
KUDEATZEKO PLAN OROKORRA
2019/2030
PLAN INTEGRAL DE GESTIÓN DE
RESIDUOS URBANOS DE GIPUZKOA

# *Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipena. 2023. urtea*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Jasangarritasun Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

Dokumentuaren egilea: CIMAS, Innovación y Medio Ambiente SLL

2024/10/03

AURKIBIDEA


**A ZATIA:ESPARRU OROKORRA ETA ABIAPUNTUA ....... 6**

**1 SARRERA ....... 7**

**2 HELBURUA ETA NORAINOKOA ....... 7**

**3 PLANARI ERAGITEN DION ESPARRU KOIUNTURALA ....... 7**

3.1 Lege eta plangintza esparrua ....... 7

3.2 Egoeraren adierazle sozioekonomikoak ....... 12

**4 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorra ....... 13**

4.1 Programak eta jarduerak ....... 13

4.1.1 Behatoki Programa ....... 13

4.1.2 Prebentzio Programa ....... 14

4.1.3 Kudeaketa Programa ....... 16

4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa ....... 18

4.2 Programaren araberako kostuak ....... 19

**B ATALA:GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRAREN BETETZE MAILA EBALUATZEA ....... 20**

**5 AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILA ....... 21**

5.1 Praktiken eta ekintzen araberako betetze mailaren azterketa, 2023. urtea ....... 21

5.1.1 Jarraipen orokorra ....... 21

5.1.2 Programen araberako jarraipena ....... 25

5.2 Betetze mailaren laburpen orokorra, 2023. urtea ....... 72

**6 HELBURUEN BETETZE MAILA, 2023. URTEA ....... 73**

6.1 Prebentzio helburuak ....... 73

6.2 Berrerabiltzeko prestatzeko helburuak ....... 76

6.3 Gaikako bilketarako helburuak ....... 76

6.4 Birziklatzeko helburuak ....... 80

6.5 Balorizazio energetikoko helburuak ....... 82

6.6 Deuseztatzeko helburuak ....... 82

**7 GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA ....... 83**

**C ZATIA: ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK ....... 87**

**8 ONDORIOAK ....... 88**

## TAULEN AURKIBIDEA


1. taula. Gipuzkoako eta EAEko hiri hondakinen inbentarioa, 2022 (kg/biz urtean eta %) ........ 13
2. taula. Behatokiaren programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea ................................ 14
3. taula. Prebentzio programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea .................................... 14
4. taula. Gaikako bilketa programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea ............................. 16
5. taula. Berrerabiltzeko prestaketa programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea............ 17
6. taula. Birziklatze programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea ..................................... 17
7. taula. Balorizazio material eta energetikoaren programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea ........................................................................................................................ 18
8. taula. Deuseztatzea optimizatzeko programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea ......... 18
9. taula. Urteko kostuak guztira, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren aurreikusitako programen arabera, 2023. urtea (euroak, 2018) ................................................................................................................... 19
10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera ............................................... 21
11. taula. 2023an Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila ........ 22
12. taula. Prebentzio programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila ...................... 22
13. taula. Gaikako bilketarako programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila ....... 23
14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila ........................................................................................................................ 23
15. taula. Birziklatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila ................................................................................................. 23
16. taula. Balorizazio programaren barruan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia ................................................................................................ 23
17. taula. Deuseztatzea optimizatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila ........................................................................................................................ 23
18. taula. Programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2023. urtea (eurotan, 2018) ........................................................................................................................ 24
19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerapen maila, 2023 72
20. taula. Prebentzio helburuen betetze maila, 2023. urtea ...................................................... 75
21. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko helburuen betetze maila, 2023. urtea.......................... 76
22. taula. Gaikako bilketako helburuen betetze maila, 2023. urtea .......................................... 78
23. taula. Birziklatzeko helburuen betetze maila, 2023. urtea ................................................. 81
24. taula. Balorizazio energetikoko helburuen betetze maila, 2023. urtea............................... 82
25. taula. Deuseztatzeko helburuen betetze maila, 2023. urtea ............................................... 82
26. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren ekintzak taldekatzea, ekintza horiek emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango dutela bermatzeko neurrien arabera............................................................................ 83
27. taula. Ekonomia zirkularraren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko GFAren beken onuradunak (2019-2023) .................................................................... 85

**IRUDIEN AURKIBIDEA**

1. irudia. Programen aurrerapen maila, 2023. urtea ........ 24
2. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2022. eta 2023. urteak ........ 73
3. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak). 2007. eta 2023. urteak ........ 76
4. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa eta Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2023. urtea *vs* 2022. urtea ........ 77

# A ZATIA: ESPARRU OROKORRA ETA ABIAPUNTUA

1. Sarrera
2. Helburua eta norainokoa
3. 4. planaren eragin esparru koiunturala. GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA

# 1 SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an onetsi zuen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokor berria (GHHKPO 2030). Plan hartan, zenbait helburu, printzipio eta programa ezarri zituen, hondakin gutxiago sortzea helburu gisa harturik, eta, horretarako, prebentzio, kudeaketa eta tratatze maila egokiak izango dira ardatza.

2022an, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren jarraipen dokumentu bat egin zen, eta, han, legezko helburuak zenbateraino bete ziren ebaluatu zen. Hala, 2022an eta 2019-2022 aldian garatutako ekintzak aztertu ziren, eta ekintza horiek GHHKPOn aurreikusitakoaren gainean zenbateraino bete ziren aztertu zen. Orobat, ekintza gehiago txertatzeko beharra balioetsi zen, hori guztia programetan oinarrituriko ikuspegia abiapuntu harturik eta oso kontuan izanda indarrean dagoen legeriatik sorturiko eskakizun eta helburu berriak, bereziki berriki onetsitakotik.

Dokumentu horren ondorioz, ondorioztatu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak, 2023-2030 aldian, ez zuela izango planaren oinarri gisa hartutako printzipioak eta helburu estrategikoak aldatu beharrik, eta egokitzapen batzuk baino ez zituela behar izango lurraldez gaindiko araudi eta plangintza aldaketen ondorioz datozen urteetan bere gain hartu beharreko helburuetan (zenbakien ikuspegitik).

# 2 XEDEA ETA IRISMENA

Dokumentu honen xedea da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorraren esparruan 2023an egindako jarduerak ebaluatzea (2023an egindako ebaluazio dokumentua kontuan hartuta), eta, hala, horien eta urte horretan lortutako sorkuntza eta kudeaketa emaitzen arteko harremana bilatzea. Hori guztia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekonomia zirkularraren kontzeptuaren barruan.

# 3 PLANARI ERAGITEN DION ESPARRU KOIUNTURALA

## 3.1 Lege eta plangintza esparrua

Atal honetan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari aplikatu beharreko legeria aztertzen da, eta zehatzago deskribatzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoari gehien eragiten dioten lege xedapenak. Orobat, eguneratu egiten dira helburuak, 2019-2022 aldiko ebaluazio txostena egin zenetik onetsitako xedapen eta plan berriekin bat etorriz.

2023an, garapen naturala izan dute hondakinei buruzko arau dokumentuek eta dokumentu estrategikoek, bai eta hondakinen kudeaketari eragiten dioten arau testuek ere. Atal honetan, horietako bakoitza aztertzen da, eta ebaluatzen da garapen estrategiko eta arau aldaketa horiek zenbateraino eragiten dioten Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari. Azterketaren irismenak Europa, estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa eta lurralde historikoa hartzen ditu, bai arau xedapenei eta estrategiei dagokienez, bai plan eta programei dagokienez.

Hauxe da azterketa aldian onetsitako arau eta plangintzen zerrenda:

- *1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa*[1]

Lege horrek esparru juridiko egonkor bat ezartzen du Euskadin neutraltasun klimatikoa beranduenez 2050. urtean lortzeko. Horren kalte gabe, neutraltasun hori 2045. urtean lortzeko behar diren ahaleginak egingo dira, eta, horretarako, lege honetan jasotako deskarbonizazio jarduketa guztiak erabiliko dira, baita jarduketa horien euskarri diren finantzaketa mekanismoak ere. Helburu horiek lortzeko bideen artean, nabarmentzekoak dira jarduera sozioproduktiboa deskarbonizatzea, ekonomia zirkularrerako trantsizioa bultzatzea eta klima aldaketara egokitzea, eta, horretarako, enplegu duina sortuko duen eta desberdintasunak murriztuko dituen garapen eredu bat ezartzea bilatuko da. Era berean, lege horren xedea da lurraldeak klima aldaketarekiko duen erresilientzia areagotzea eta, horretaz gainera, trantsizio energetikoak eskaintzen dituen gizarte, enpresa eta ekonomia aukerak aprobetxatzea. Berotegi efektuko gasak % 45 murrizteko tarteko helburu bat ezarri da 2030erako (2005 erreferentzia urtetzat hartuta).

2. atalak ("Neutraltasuna sustatzen duten beste sektore- eta lurralde-politika batzuk") 32.1 artikuluan aipatzen duenez, "Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, bizi-zikloaren ikuspegia aintzat hartu beharko dute ekonomia zirkularraren arloan ezartzen dituzten neurrietan, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea sustatzeko". Era berean, hondakinei loturiko helburua ere aipatzen da. Hain justu:

"c) Lehengaien ordez, hondakinak baliatuta sortutako azpiproduktuak edo bigarren mailako lehengaiak erabil daitezen sustatzea, horrela ekonomia zirkularra bultzatzeko.

d) Hondakin-sorreraren murrizketa eta hondakinen kudeaketaren eta balorizazioaren optimizazioa sustatzea.

e) Hiri-hondakinen gaikako bilketa handitzea, bereziki, materia organikoarena eta plastikozko ontziena.

f) Zabortegietan utzitako hondakin biodegradagarriak murriztea.

g) Hondakinen bilketa- eta garraio-prozesuan bertan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko bide ematen duten ereduak ezar daitezen bultzatzea.

h) Hondakinak eta hondakin-urak kudeatzeko instalazioetan berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzeko eta biogasa aprobetxatzeko neurriak ezartzea".

Bestalde, 32.2 artikuluak hauxe ezartzen du: "Hondakinak kudeatzeko eta ura tratatzeko instalazioek beren karbono-aztarna kalkulatu eta plan bat egin beharko dute aztarna minimizatzeko, aztarna zero edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izanez gero. Erregelamendu bidez ezarriko da zer instalaziok duten betebehar hori, zein den karbono-aztarnaren kalkuluaren irismena, planak, gutxienez, zer eduki jasoko duen, zer epe egongo den plana idazteko eta zer maiztasunekin eguneratuko den".

Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko fiskalitateari dagokionez, 59. artikuluan aipatzen da euskal administrazio publikoek lankidetzan eta elkarrekin koordinatuta jardungo dutela,

[1] EHAA, 38. zk. (2024/02/21)

"batetik, zaurgarritasuna areagotzen edo berotegi-efektuko gasen emisioa handitzen duten jardueren gaineko karga jakin batzuk ezartzea ebaluatzeko, eta, bestetik, fiskalki sustatzeko berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten, gutxitzen edo xurgatzen edo klima-aldaketara egokitzen laguntzen duten jarduketak, teknikoki eta ekonomikoki posible den heinean". Hondakinak sortzea saihestea eta hondakinoi balioa ematea ageri dira lege horretan aipaturiko helburuen artean.

· *2024/825 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko otsailaren 28koa, 2005/29/EE eta 2011/83/EB zuzentarauak aldatzen dituena trantsizio ekologikorako kontsumitzaileen ahalduntzeari dagokionez, eta, horretarako, jardunbide desleialetik hobeto babestea eta informazio hobea ematea aurreikusten duena.*

Zuzentarau horren helburu nagusia da kontsumitzaileak ahalduntzea trantsizio ekologikorako, eta, bide horretan, merkataritza jarduera desleialetatik hobeto babestea eta informazio gehiago ematea. Horretarako, berariazko arauak sartu dira, kontsumitzaileen kontsumo erabaki jasangarriak hartzeko gaitasunari eragiten dioten engainuzko jardunbideei aurre egiteko —hala nola zaharkitze goiztiarra, ingurumen baieztapen engainagarriak, produktuen ezaugarri sozialei buruzko informazio engainagarria, eta jasangarritasun bereizgarri ez oso gardenak—.

Hona hemen aurreko zuzentarauekin alderatuta txertatu dituzten aldaketetako batzuk:

· Zuzentarau horrek adierazten duenez, "debekatuta dago ingurumen baieztapen bat egitea etorkizuneko ingurumen portaerarekin lotuta, ez badauka konpromiso argirik, objektiborik, publikoki eskuragarri eta egiaztagarririk, gauzatze plan xehatu eta errealista batean ezarrita. Plan horrek helburu neurgarriak eta denboran mugatuak izango ditu, bai eta horiek aplikatzen laguntzeko beharrezko beste elementu batzuk ere, hala nola baliabideen esleipena. Hirugarren aditu independente batek egiaztatu egingo ditu aldian-aldian, eta kontsumitzaileen eskura ipiniko ditu lorturiko ondorioak".

· Zenbait mekanismo ezartzen dira, kontsumitzaileei kontratatu aurretik informazioa hobea emateko jasangarritasunaren, konpongarritasunaren eta eguneratzeak eskura izatearen gainean. Horretaz gainera, informazio hori argi eta ulertzeko moduan eman behar zaie kontsumitzaileei.

Estatu kideek 2026ko martxoaren 27a baino lehen egin beharko dute zuzentarau honen transposizioa, eta ez da aplikatuko 2026ko irailaren 27ra arte.

· *2024/1157 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko apirilaren 11koa, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa.*

Jasotzen dituen neurrien artean, nabarmentzekoak dira, konparazio baterako, ingurumena eta giza osasuna babestekoak, klima neutraltasunari laguntzekoak, ekonomia zirkularra lortzekoak, eta hondakinen lekualdaketetatik eta hondakinen helmugako tratamendutik erator daitezkeen ondorio kaltegarriak prebenitzekoak edota murriztekoak. Zehazki, hondakinak lekualdatzeko kontrol prozedurak eta araubideak aurreikusten ditu, kontuan harturik jatorria, helmuga eta lekualdaketa ibilbidea, hondakin mota eta helmugan hondakinei aplikatuko zaien tratamendu mota.

· *57/2024 Dekretua, maiatzaren 7koa, elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa*[2]

Dekretu horren xedea da elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriak garatzea. Horien artean sartzen dira jarraian zehazten diren hauek: a) EAEko Elikagaien Kontratazioko Merkataritza Jardunbide Egokien Kodea, b) EAEko Elikakatearen Behatokia, c) Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritza Betearazlea, d) Zehatzeko ahala, eta e) Kontrolen araubidea. Gainera, arauan kide anitzeko organo bat sortzen da; hau da, Elikagaien Kontratazioko Merkataritza Jardunbide Egokien Kodearen Jarraipen Batzordea.

Jardunbide Egokien Kode horri dagokionez, aipatu behar da haren helburuen artean dagoela elikadura katearen eta, bereziki, lehen sektorearen gizarte, ekonomia eta ingurumen jasangarritasuna bultzatzea.

· *2024/1760 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko ekainaren 13koa, enpresek jasangarritasunaren arloan behar duten arretari buruzkoa eta 2019/1937 (EB) Zuzentaraua eta 2023/2859 (EB) Erregelamendua aldatzen dituena.*

Zuzentarau horrek enpresei dagozkien betebeharrei eta erantzukizunei buruzko arauak ezartzen ditu (2. artikulua), beren eragiketek, filialenek eta merkataritza bazkideek enpresa horien jarduera kateetan egindako eragiketen ondorioz, giza eskubideetan eta ingurumenean gerta daitezken erasan kaltegarriei dagokienez, izan horiek errealak, izan potentzialak. Ezartzen du enpresek trantsizio plan bat onetsi eta gauzatu behar dutela klima aldaketa arintzeko.

Estatu kideek zaindu egingo dute enpresek, giza eskubideen eta ingurumenaren arloan, arreta handiz jarduten dutela[3], 5. artikuluan jasotako ekintzen bidez.

· *2024/1781 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko ekainaren 13koa, produktu jasangarriei aplika dakizkiekeen diseinu ekologikoko baldintzak ezartzeko esparru bat ezartzen duena, 2020/1828 (EB) Zuzentaraua eta 2023/1542 (EB) Erregelamendua aldatzen dituena eta 2009/125/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.*

Joan den uztailaren 18an jarri zen indarrean Produktu jasangarrientzako diseinu ekologikoari buruzko Erregelamendu berria (ESPR[4]). Erregelamendu horrek ezartzen duen esparruak zenbait baldintza ezartzen ditu, produktuek merkatuan sartzeko edo zerbitzuan jartzeko bete behar dituzten diseinu ekologikoarekin loturik. Horren guztiaren helburua da produktuen ingurumen jasangarritasuna hobetzea, produktu jasangarriak bihur daitezen eguneroko, bai eta produktuen bizi zikloan karbono aztarna eta ingurumen aztarna globala murrizteko eta barne merkatuan askatasunez zirkulatzea bermatzeko ere.

---

[2] EHAA, 98. zk. (2024/05/21)

[3] Kontrako efektu erreal eta potentzialei loturik, enpresek azal dezakete nola identifikatzen, prebenitzen, arintzen eta lantzen dituzten.

[4] Produktu Jasangarrientzako Ekodiseinu Erregelamendua

Erregelamendu horrek, gainera, produktuaren pasaporte digitala ezartzen du, kontratazio publiko ekologikoaren nahitaezko baldintzak ezartzen ditu eta saldu gabeko kontsumo produktuen suntsiketa prebenitzeko esparru bat sortzen du.

Haren helburuen artean ageri da zaharkitze programatuari aurre egitea, eta hautsitako edo matxuratutako produktuen konponketa bultzatzea. Beraz, hondakinak prebenitzea sustatzen du, baita produktuen bizitza erabilgarria areagotzea eta konponketa erraztea ere. Era berean, birfabrifikazio, berregokitze eta birziklatze jardueren bideragarritasuna handitzea bilatzen da.

Ildo horretan, erregelamenduak zenbait produktu multzo lehenesten ditu onesten den lehen lan planean[5]; besteak beste, burdina, altzairua, aluminioa, ehunak (bereziki, jantziak eta oinetakoak), altzariak, pneumatikoak, detergenteak, pinturak, lubrifikatzaileak eta produktu kimikoak.

Horretaz gainera, berariaz debekatzen da legeak indarra hartu eta bi urtera jantziak, jantzi osagarriak eta saldu gabeko oinetakoak suntsitzea (sei urte enpresa ertainentzat), eta zenbait salbuespen ezartzen ditu enpresa txikientzat, bai eta trantsizio aldi bat ere ertainentzat.

Ekodiseinu Erregelamenduak araututako produktu guztiek Produktuaren Pasaporte Digitala eduki beharko dute. Etiketa eskaneagarri bat da, eta jasangarritasunari buruzko informazioa emango du. Hartara, kontsumitzaileek errazago hartu ahal izango dituzte erosketa erabaki arduratsuak, eta ondasun jasangarriagoak lehenetsi ahal izango dituzte.

Aurreikusita dago, orobat, onlineko plataforma bat sortzea ere, kontsumitzaileek etxetik gertu, erraz eta doan aurkitu ahal izan ditzaten konpontzaileak, ordezko piezen edo produktu berregokituen saltzaileak, baita akastun artikuluen erosleak ere.

Erregelamendu horren edukiari dagokionez, Ekodiseinu Foroa sortzea da urratsik hurbilenetako bat, zeinaren helburua baita alderdi interesdunen ekarpenak biltzea.

- *2024/1799 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko ekainaren 13koa, ondasunen konponketa sustatzeko arau erkideak ezartzen dituena eta 2017/2394 (EB) Erregelamendua eta 2019/771 (EB) eta 2020/1828 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituena.*

Ondasunak konpontzeari buruzko xedapenak indartzeko arau erkideak ezartzen ditu, barne merkatuak behar bezala funtziona dezan laguntzeko eta, aldi berean, kontsumitzaileak eta ingurumena babesteko maila mardul bat bermatzeko.

5. artikuluan, konponketekin loturiko betebeharrak eta baldintzak jasotzen dira. Ezartzen duenaren arabera, estatu kideek zaindu behar dute, kontsumitzaileek hala eskatzean, fabrikatzaileak konpontzen dituela lege testuaren xede diren ondasunak (II. eranskinean daude zerrendatuta),

---

[5] Europako Batzordeak urte anitzeko lan planak argitaratuko ditu. Plan horietan, landu beharreko produktuak eta neurriak zerrendatuko dira.

betiere zuzentarauak konpongarritasun baldintzak ezartzen baditu haientzat, eta ezartzen diren neurrian, gainera. Fabrikatzailea ez dago ondasun horiek konpontzera behartuta konponketa ezinezkoa denean, eta, konpontzeko obligazioa betetzeko, fabrikatzaileak azpikontratatu ahal izango du konponketa.

Konponketei buruzko Europako onlineko plataforma bat ezarriko da, kontsumitzaileek eskura izan ditzaten konpontzaileak eta, kasuaren arabera, berregokitutako ondasunen saltzaileak, berriz egokitzeko ondasun akastunen erosleak edo partaidetzan oinarritutako konponketa ekimenak. Europako onlineko plataforma hori atal nazional espezifikoek osatuko dute. Beranduenik ere 2027ko uztailaren 31rako, Batzordeak onlineko interfaze komun bat garatuko du Europako plataformarako, eta estatu kideek zainduko dute beren onlineko plataforma nazionalak martxan daudela data horretarako.

13. artikuluak ezartzen du estatu kideek gutxienez konponketa sustatzeko neurri bat hartuko dutela, eta beranduenez 2029ko uztailaren 31n jakinaraziko dizkiotela Batzordeari hartutako neurriak.

Zuzentarauaren arabera, estatu kideek indarrean jarriko dituzte beharrezko lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak, beranduenez 2026ko uztailaren 31n.

· *Hondakinei buruzko esparru zuzentaraua berrikusteko proposamena.*

2024ko ekainaren 17ko Ingurumen Kontseiluan, EBko Ingurumeneko ministroek orientazio orokor bat lortu dute hondakinei buruzko esparru zuzentaraua berrikusteko proposamenari buruz, eta bereziki nabarmendu dituzte ehungintza eta elikagaigintza sektoreak. Helburu orokorra da ehungintza eta elikagaigintza produktuen hondakinak sortzeari eta kudeatzeari lotutako ingurumen eta klima ondorioak murriztea. Xede gisa dauka ezarrita, orobat, ehungintzaren sektorean zirkulartasuna sustatzea.

Azken urteetan onetsitako arau berriek ekoizlearen erantzukizun hedatuko nahitaezko araubide harmonizatuak ezartzen dituzte EBko estatu kide guztietako ehungintza ekoizleentzat. Orientazio orokorrak, halaber, juridikoki lotesleak diren helburuak ezartzen ditu estatu kideentzat elikagaien hondakinak murrizteko. Hala, hemendik 2030era arte lortu beharko da % 10 murriztea eraldaketan eta fabrikazioan, eta % 30 (*per capita*) txikizkako salmentan, jatetxeetan, jatetxe zerbitzuetan eta etxeetan. Orientazio orokorrak Batzordeak proposatutako helburuak babesten ditu, eta jateko moduan dauden elikagai hondarrekin loturiko helburuak finkatzeko aukera aurreikusten du —beranduenez 2027ko abenduaren 31n, Batzordeak 2030erako helburuak berrikustearekin batera—. Elikagai hondarrak murrizteko helburuak 2020an sortutako hondakin kantitatea erreferentzia gisa hartuta kalkulatuko dira, urte hartan bildu baitziren lehenbizikoz elikagai hondarrei buruzko datuak metodo harmonizatu bati jarraikiz.

## 3.2 Egoeraren adierazle sozioekonomikoak

ADEGIren *Gipuzkoako koiuntura ekonomikoa, 2024ko urtarrila*txostenean jasotako datuen arabera, Gipuzkoako **ekonomia** % 1,8 inguru hazi zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta. Hazkunde horrek nolabaiteko moteltzea dakar aurreko urteekin alderatuta (% 4,3 izan 2022an,

eta % 5,9koa 2021ean), baina garrantzitsua da gogoraraztea ekonomiak 2020an izandako beherakada –% 9,9ra iritsi zela. Hala ere, ondoz ondoko hiru urteko susperraldiari esker, 2023an, Gipuzkoako barne produktu gordinak % 1,3an gainditu zuen 2019ko pandemia aurreko maximoa.

**Enpleguari** dagokionez (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta), 2023an, batez beste, igoera % 1,5 edo % 1,6 ingurukoa izan zen, aurreko urtearekin alderatuta.

**Udal hondakinen kudeaketari** dagokionez, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteko datuak eta 2022ko EAEkoak alderatzen baditugu, ikusiko dugu Gipuzkoan % 9an baino gehiagoan gainditzen duela autonomia erkidegoko tasa. Gipuzkoako deuseztatze datuak hartzen baditugu ere, nabarmen hobeak dira EAEko tasekin alderaturik. Gipuzkoak hiri hondakinen % 3 baino ez du deuseztatzen, eta EAEn, berriz, % 18 ingurukoa da tasa hori.

*1. taula. Gipuzkoako eta EAEko hiri hondakinen inbentarioa, 2022 (kg/biz urtean eta %)*

| Lurraldea | Birziklatzea | Balorizazio energetikoa | Deuseztatzea | Galerak eta biltegiratzea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 235 (% 54) | 186 (% 43) | 10 (% 2) | 0,2 (% 0) | 432 |
| EAE | 189 (% 42) | 136 (% 30) | 76 (% 17) | 46 (% 10) | 446 |

*Iturria: Gipuzkoako Hondakinen Behatokia, eta geuk egina, EAEko Hiri hondakin solidoen 2022ko Estatistikatik abiatuta*

Gipuzkoako 2023ko Hondakinen Inbentarioaren ondorio nagusiak dira urte hartan % 53,9koa izan zela birziklatze tasa, hau da, 2025erako Europako % 55eko helburua betetzetik oso gertu. Goranzko joera argia nabari da, hortaz, ehuneko 11,7 puntu igo baita tasa hori 2015etik. Gaikako bilketari eta errefusa berreskuratzeari dagokionez, indizea % 60,4koa da. Horrek adierazten duenez, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa ereduak sendotzen jarraitzen du urtetik urtera, eta eredu hori erreferentzia ari da bihurtzen hala Euskadin nola Europan.

# 4 Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorra

Jarraian, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko programen deskribapena eta horietako bakoitzaren jarduera zerrenda jasotzen da, 2023rako aurreikusitako gauzatze epea dutenak nabarmenduta.

## 4.1 Programak eta jarduerak

### 4.1.1 Behatoki programa

Programa transbertsal honen ardatza da emaitzak eta txostenak biltzea eta zabaltzea, eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren babesa du lurraldeko udal hondakinei buruzko informazioa biltzeko, prestatzeko eta zabaltzeko, irizpide homogeneoak baliatuz. Era berean, behatoki horrek laguntza ematen dio hondakinen kudeaketari buruzko alderdi guztien etengabeko jarraipena egiteko, baita Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrarena berarena ere.

Herritarrekin informatzeko, komunikatzeko eta sentsibilizatzeko kanal irekiak ditu, baina baita

beste erakunde eta/edo eragile interesgarri batzuekin hartu-emanak izateko ere, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin, eta, bereziki, udalerri eta mankomunitate guztiekin.

Alderdi horiekin guztiekin loturik, taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako planifikaturikoak.

*2. taula. Behatokiaren programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Eki ntz a | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| BEHATOKIA-1 | Interesgarriak izan daitezkeen eta areagotzen ari diren hondakinen karakterizazioak egitea eta toki erakundeek eta kudeatzaileek eginiko karakterizazioak biltzea. | EZ |
| BEHATOKIA-2 | Gipuzkoako hondakinen sorkuntza eta gaikako bilketako datu basea kudeatzeko sistemen irizpideak bateratzea, sistema horiek hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk. | BAI |
| BEHATOKIA-3 | Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua) | BAI |
| BEHATOKIA-4 | Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin. | BAI |
| BEHATOKIA-5 | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipen txostenak idaztea | BAI |
| BEHATOKIA-6 | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen garapena. | BAI |
| BEHATOKIA-7 | Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea. | BAI |
| BEHATOKIA-8 | Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea. | BAI |
| BEHATOKIA-9 | Zenbait udalerrik egindako esperientzia arrakastatsuak behatokiaren bidez identifikatzea eta zabaltzea. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea. | BAI |
| BEHATOKIA-10 | Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea | BAI |

## 4.1.2 Prebentzio programa

Prebentzioaren gaia jorratzen duten kanal egonkorrak ditu, eta lehentasunezko hondakin fluxuetan gauzatzen ditu ekintzak, hala nola ehunetan eta elikagai hondakinetan. Moda jasangarriaren klusterraren bidez, edo Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetza hitzarmenak sinatzen dituzten gainerako eragile espezializatuen bitartez, besteak beste.

Baina programa horretan zabaltzen dira, orobat, sortutako gainerako hondakinen prebentzioa sustatzeko ekintzak ere, hala nola etxeetan eta merkataritza establezimenduetan kontsumo arduratsua sustatzea, edo sorkuntzaren araberako ordainketa politikak bultzatzea, esaterako.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako aurreikusitakoak.

*3. taula. Prebentzio programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentz ia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| PREBENTZI OA-1 | Hondakinak sortzeagatiko ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta. | BAI |

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| PREBENTZIOA-2 | Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin; I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak...); kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...). | BAI |
| PREBENTZIOA-3 | Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz. | BAI |
| PREBENTZIOA-4 | Gipuzkoako Foru Aldundian erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak. | BAI |
| PREBENTZIOA-5 | Ekodiseinua bultzatzea | BAI |
| PREBENTZIOA-6 | Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea | BAI |
| PREBENTZIOA-7 | Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekiko norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetza hitzarmen izendunak). | BAI |
| PREBENTZIOA-8 | Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa. | BAI |
| PREBENTZIOA-9 | Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emaileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak. | BAI |
| PREBENTZIOA-10 | Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag). | BAI |
| PREBENTZIOA-11 | Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea. | BAI |
| PREBENTZIOA-12 | Elikadura soberakinen sorkuntza eta prebentziorako adierazleen jarraipena. Diagnostikoa eguneratzea. | EZ |
| PREBENTZIOA-13 | Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzea eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpiproduktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpiproduktuak berrerabilita. | BAI |
| PREBENTZIOA-14 | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzi hondakin gutxiago sortzeko erosketa jardunbide egokiak sustatzeko: erosketarako ontzi berrerabilgarriak, ontziratu gabeko produktuak, plastikozko poltsak, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab. | BAI |
| PREBENTZIOA-15 | Txorrotako uraren kontsumoa sustatzea herritarren artean, oro har. | EZ (Amaituta) |
| PREBENTZIOA-16 | Itzuli daitezkeen botilen erabilera sustatzea uraren, sagardoaren eta ontziratutako ardoaren sektoreetan. | BAI |
| PREBENTZIOA-17 | Salmentarako jardunbide egokiak sustatzea, merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sortzeko. | BAI |
| PREBENTZIOA-18 | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko. | BAI |

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| PREBENTZIOA-19 | Gipuzkoako merkataritza eta industria sektoreen hondakinak prebenitzeko zerga pizgarrien azterketa egitea. | EZ (Amaituta) |
| PREBENTZIOA-20 | Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea: sakabanatutako zaborraren jatorri fokuak aztertzea, ibaietan, hondartzetan eta itsasoan zaborra prebenitzeko eta murrizteko neurriak definitzea eta garatzea, eta herritarrak sentsibilizatzeko neurriak hartzea. | BAI |
| PREBENTZIOA-21 | Etxekoak ez diren sorgailuak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruzko esperientzia pilotuak egitea (borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin) Birziklatze Klusterraren esparruan. | BAI |
| PREBENTZIOA-22 | Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak bultzatzea, eta, horretarako, obra eta zerbitzuen kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ipintzea. | BAI |

## 4.1.3 Kudeaketa programa

### 4.1.3.1 Gaikako bilketarako programa

Nahiz eta Gipuzkoa izan Europan gaikako bilketaren alorreko indize handiena duen eskualdeetako bat, lehentasunezkotzat jotzen da mankomunitateei laguntzeko bide horretan jarraitzea, beren ereduak eta gaikako bilketa sistema etengabe hobetzen joateko, adierazleak ere hobetze aldera. Horretaz gainera, herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak egingo dira, beharrezkoa baita ezarritako ereduetan parte hartzea.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako aurreikusitakoak.

*4. taula. Gaikako bilketa programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| GAIKAKO BILKETA-1 | Mankomunitateei laguntzea hondakinen gaikako bilketarako eredu eta sistema oso eraginkorrak eta jasangarriak bultzatzen eta etengabe hobetzen, eta, horretarako, neurri hauek sustatzea: ereduen eta sistemen azterketa bateratua, lurralde mailako irizpideen koordinazioa, erabiltzaileen ikuspegiaren azterketa eta integrazioa (genero irizpideak barne), sistema adimendunak txertatzea eta emaitzen ebaluazioa. | BAI |
| GAIKAKO BILKETA-2 | Mankomunitateekin batera, garbiguneen egokitzapena eta hondakinen korronte guztietarako administrazio irizpideen homogeneizazioa sustatzea eta haien erabilera bultzatzea –barnean harturik fibrozementu estrukturala, obra txikietako hondakinak eta gainerako etxeko hondakin arriskutsuak–, baita kopuru jakin batzuetatik aurrera kobratzeko aukera aurreikustea ere. | BAI |
| GAIKAKO BILKETA-3 | Transferentzia instalazioekin lotutako beharren analisia egitea. | EZ |
| GAIKAKO BILKETA-4 | Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea. | BAI |

### 4.1.3.2 Berrerabiltzeko prestatzeko programa

Programa hau berrerabiltzearen inguruko prestakuntza sustatzearekin lotutako ekintzak garatzen ari da, kontuan izanik garrantzi handia hartzen ari dela orain, berriki onartutako

araudietan ezarritako eskakizunei erantzunez (ikusi 3.1 atala).

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean 2019an jasotako zenbait ekintzarekin jarraitzea, hala nola tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.

Programa honi dagokionez, taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako planifikatutakoak.

*5. taula. Berrerabiltzeko prestaketa programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea. | BAI |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2 | Garbiguneak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko sustapena, mankomunitateekin batera. | EZ |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3 | Garbiguneen eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko. | BAI |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4 | Berrerabilerarako Prestakuntza Zentro (BPZ) baten beharrak aztertzea. | EZ (Amaituta) |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5 | Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzea (zuzenean edo berrerabiltzeko prestatu ondoren). | BAI |

### 4.1.3.3 Birziklatzeko programa, konpostajea/biometanizazioa barne

Programa horren garrantzia eta haren inguruko ekintzen garapena kontuan hartuta, azken urteotan Europar Batasunean birziklatze indize onenak dituzten eskualdeen artean finkatu da Gipuzkoako Lurralde Historikoa. Programaren oinarrizko zutabetzat hartzen da GK Recycling eta haren enpresen ahalegina, Gipuzkoan sortutako hondakinen tratamendurako eta kudeaketarako soluzioak bilatzen diharduen aldetik.

Zehazki, taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako aurreikusitakoak.

*6. taula. Birziklatze programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| BIRZIKLATZEA-1 | Biometanizazioko/konpostajeko planten ustiapena sustatzea, kalitatea bermatzeko eta merkatura bideratutako produktu bat sortzera eta konpost eta digestatuaren merkaturatzea hobetzera bideratutako sistemen pean. | EZ |
| BIRZIKLATZEA-2 | Konpostaje eta/edo biometanizazio instalazioen beharrak aztertzea. | EZ |
| BIRZIKLATZEA-3 | Ontziak bereizteko Legazpiko eta Urnietako egungo plantek dituzten beharrak aztertzea. Zerbitzua zabaltzea, kasuak hala eskatzen badu, eta hondakinen kudeaketan hurbiltasun printzipioa indartzea. | EZ |

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| BIRZIKLATZEA-4 | Obra publikoan birziklatutako agregakinen erabilera sustatzea. | BAI |
| BIRZIKLATZEA-5 | Gipuzkoako birziklapenaren klusterra (GK Recycling) bultzatzea ekonomia zirkularra sustatzeko: klusterra zabaltzea Gipuzkoako zentro teknologiko, unibertsitate, fundazio eta enpresa gehiago sar dadin; plan estrategikoa garatzea; I+G+Baren arloko ekintza pilotuak bultzatzea, irizpideak eta tresnak sustatu eta ikusarazteko; nazioartekotzeko eta hedatzeko ekintzak antolatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioarekin eta beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan. | BAI |
| BIRZIKLATZEA-6 | Esperientzia arrakastatsuak trukatzea, identifikatzea eta zabaltzea, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea. | BAI |

#### 4.1.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia

Programa honen helburua da eragile sare bat sortzea, balorizazio materialaren arloan I+G+Bko proiektuen ikerketa eta garapena bermatzera bideratuta.

Horretaz gainera, Gipuzkoako Ingurumen Guneko instalazioen ustiapena ingurumenarentzat eta pertsonentzat ahalik eta efizientzia, kalitate eta segurtasun handienarekin egiten dela bermatzea.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2023rako aurreikusitakoak.

*7. taula. Balorizazio material eta energetikoaren programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| BALORIZAZIOA-1 | I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko. | BAI |
| BALORIZAZIOA-2 | Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak. | BAI |

### 4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa

Programa hori azken urteetan ezartzeak eragin du Gipuzkoako Lurralde Historikoan maximoetan murriztu dela bigarren mailako hondakinen isurketa.

Erantsitako taulan jasotzen dira programa honetan jasotakoa betetzen jarraitzeko 2023an aurreikusitako ekintzak.

*8. taula. Deuseztatzea optimizatzeko programan aurreikusitako jarduerak, 2023. urtea*

| Erreferentzia | Ekintza | 2023rako aurreikusia |
|---|---|---|
| DEUSESTATZEA-1 | Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea. | BAI |

| | | |
|---|---|---|
| DEUSESTA TZEA-2 | Zabortegian utzitako bigarren mailako hiri hondakinen kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea, 2018/850 Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko. | EZ (Amaituta) |

## 4.2 Programaren araberako kostuak

2022an egindako 2019-2022 aldiko ebaluazio txostenaren 37. taulan daude jasota Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030eko Plan Orokorrean zehazten diren helburuak betetzeko abian jarri beharreko jarduerei lotutako kostuak, programen arabera banakatuta eta urtez urte.

Taula honek laburbildurik jasotzen ditu 2023. urtean gauzatzea aurreikusitako jarduketa kopurua eta haien kostuak[6].

*9. taula. Urteko kostuak guztira, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren aurreikusitako programen arabera, 2023. urtea (euroak, 2018)*

| Jarduera | Euroak | Jarduera kop. |
|---|---|---|
| Behatoki programa | 228.000 | 9 |
| Prebentzio programa | 1.938.000 | 19 |
| Gaikako bilketarako programa | 50.000 | 3 |
| Berrerabiltzeko prestatzeko programa | 110.000 | 3 |
| Birziklatzeko programa | 145.000 | 3 |
| Balorizazio programa: materiala eta energia | 423.000 | 2 |
| Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa | 0 | 1 |
| Guztira | **2.894.000** | **40** |

[6] Dokumentu honetan jasotako balio ekonomikoek barnean hartzen dute BEZa.

# B ATALA: GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRAREN BETETZE MAILA EBALUATZEA

5. Aurreikusitako jardueren betetze maila
6. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko helburuen eta adierazleen betetze maila
7. Genero inpaktuaren ebaluazioa

# 5 AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILA

## 5.1 Praktiken eta ekintzen araberako betetze mailaren azterketa, 2023. urtea

### 5.1.1 Jarraipen orokorra

Planaren 2023ko aurrerapen eta gauzatze maila ebaluatzeko, urte horretan bertan garatutako jardueren azterketa egin da.

Horretarako, aurreikusitako ekintza bakoitza baloratuko da, eta kategoria bat emango zaie: hasi gabea, hasia, abian, aurreratua edo amaitua, eta puntuazio bat, helburu bakoitzaren aurrerapen maila definituko duena.

*10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera*

| Ekintza | Aurrerapen maila | Lortu beharreko gehieneko puntuak |
|---|---|---|
| Hasi gabea | Hasi gabea | 0 puntu |
| Hasita | % 1 eta % 25 artean gauzatua | 1 puntu |
| Abian | % 26 eta % 75 artean gauzatua | 2 puntu |
| Aurreratua | % 76 eta % 99 artean gauzatua | 3 puntu |
| Amaituta | % 100ean gauzatua | 4 puntu |

*Iturria: Geuk egina.*

Ekintza bakoitzaren kategorizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren taldearekin egindako kontraste prozesuaren bidez egin da.

Programa bakoitzaren aurrerapen maila zehazteko, kontuan hartuko da zenbat puntu lortu dituzten programaren ekintzek eta zenbat puntu lortu ahal ditzaketen gehienez. Hona hemen adibide teoriko bat.

Ekintzak:

a) 1. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1

b) 2. ekintza, % 100ean gauzatua = 4 puntu

c) 3. ekintza, % 76 eta % 99 artean gauzatua = 3 puntu

d) 4. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1

e) 5. ekintza, hasi gabea = 0 puntu

Lortu beharreko gehieneko puntuazioa: 4 puntu x 5 ekintza = 20 puntu. Lortutako puntuazioa: 9 puntu (1+4+3+1)

Atxikitako taula honetan ageri da programa bakoitzaren barruan garatutako jarduera bakoitzaren aurrerapen mailaren banakapena.

*11. taula. 2023an Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| BEHATOKIA-2 | 4 |
| BEHATOKIA-3 | 4 |
| BEHATOKIA-4 | 0 |
| BEHATOKIA-5 | 4 |
| BEHATOKIA-6 | 4 |
| BEHATOKIA-7 | 4 |
| BEHATOKIA-8 | 4 |
| BEHATOKIA-9 | 0 |
| BEHATOKIA-10 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*12. taula. Prebentzio programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| PREBENTZIOA-1 | 4 |
| PREBENTZIOA-2 | 4 |
| PREBENTZIOA-3 | 4 |
| PREBENTZIOA-4 | 4 |
| PREBENTZIOA-5 | 4 |
| PREBENTZIOA-6 | 4 |
| PREBENTZIOA-7 | 4 |
| PREBENTZIOA-8 | 4 |
| PREBENTZIOA-9 | 4 |
| PREBENTZIOA-10 | 4 |
| PREBENTZIOA-11 | 4 |

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| PREBENTZIOA-13 | 4 |
| PREBENTZIOA-14 | 4 |
| PREBENTZIOA-16 | 4 |
| PREBENTZIOA-17 | 4 |
| PREBENTZIOA-18 | 4 |
| PREBENTZIOA-20 | 4 |
| PREBENTZIOA-21 | 4 |
| PREBENTZIOA-22 | 4 |
| | |
| | |
| | |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*13. taula. Gaikako bilketarako programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| GAIKAKO BILKETA-1 | 4 |
| GAIKAKO BILKETA-2 | 4 |
| GAIKAKO BILKETA-4 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1 | 4 |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3 | 4 |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*15. taula. Birziklatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| BIRZIKLATZEA-2 | 4 |
| BIRZIKLATZEA-4 | 4 |
| BIRZIKLATZEA-5 | 4 |
| BIRZIKLATZEA-6 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*16. taula. Balorizazio programaren barruan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak |
|---|---|
| BALORIZAZIOA-1 | 4 |
| BALORIZAZIOA-2 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

*17. taula. Deusestatzea optimizatzeko programan 2023an egindako jardueren aurrerapen maila*

| Jarduera | Aurrerapen mailaren arabera lortutako |
|---|---|

| | puntuak |
|---|---|
| DEUSESTATZEA-1 | 4 |

*Iturria: Guk geuk egina.*

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak 2023an izaniko inplementazio maila (aurretik zerrendatutako jarduketek zenbaterainoko aurrerapena izan duten kontuan hartuta) **% 97**ra iristen da, programaka banaturik.

*1. irudia. Programen aurrerapen maila, 2023. Urtea*




Iturria: Guk geuk egina.

2023an garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako kostuak eta benetan gauzatutako partidak kontuan hartzen baditugu, ikusten da aurrekontuaren betetze maila % 110ekoa dela.

Hasierako aurrekontua programaren araberakoa zen, eta azkenean gauzatutakoa erantsitako taulan jaso da.

*18. taula. Programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2023. urtea (eurotan, 2018)*

| Jarduera | Aurreikusi a | Erreala | Betetze maila |
|---|---|---|---|
| Behatoki programa | 228.000 | 375.890 | % 165 |
| Prebentzio programa | 1.938.000 | 1.904.019 | % 98 |
| Gaikako bilketarako programa | 50.000 | 0 | % 0 |
| Berrerabiltzeko prestatzeko programa | 110.000 | 147.909 | % 134 |
| Birziklatzeko programa | 145.000 | 354.016 | % 244 |
| Balorizazio programa: materiala eta energia | 423.000 | 406.565 | % 96 |
| Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa | 0 | 0 | |
| Jarduera guztien kostua | **2.894.000** | **3.188.400** | **% 110** |

Esanguratsua da 2023an behatokiak eginiko apustua; hau da, berrerabilpenerako prestaketa programak eta birziklatze programak, zeinek gainditu egiten baitute aurrekontuaren betetze mailaren % 100. Gaikako bilketak eta beste zenbait programak ez dute aurrekontu zenbatetsirik eskatu, nahiz eta lortu duten urtean zehar jardueren garapenean aurrera egitea.

## 5.1.2 Programen araberako jarraipena

Jarraian, 2023an garatutako ekintza bakoitzaren deskribapena jasotzen da.

### 5.1.2.1 Behatoki programa

Programa horrek 10 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2023an horietatik 9 gauzatzea zegoen aurreikusita. Programaren aurrerapen maila % 78koa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

| | | |
|---|---|---|
|  | **BEHATOKI PROGRAMA** | |
| **BEHATOKIA-2** | Gipuzkoako hondakinen sorkuntza eta gaikako bilketako datu basea kudeatzeko sistemen irizpideak bateratzea, sistema horiek hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk. | Aurrerapen maila  *4.266 €* |
| BEHATOKIA-2.1 | Biohondakinen gaikako bilketaren digitalizazioa Zegaman, Idiazabalen, Olaberrian eta Ormaiztegin | · Zegaman, Idiazabalen, Olaberrian eta Ormaiztegin biohondakinak gaika biltzeari buruzko informazioa eta datuak digitalizatzeko proiektua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[7] |
| BEHATOKIA-2.2 | SFA sistema industrializatzea eta ezartzea | · Ekoizle handietan olio hondakinak efizientzia handiagoz biltzeko sistema bat ezartzea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| BEHATOKIA-2.3 | SIGRU tresna eguneratzea | · Gaur egun, SIGRU programaren bidez komunikatzen dira udaletako hondakinen datuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzaren, GHKren eta hondakinen mankomunitateen bitartez. Hala ere, zenbait kalkulu egiteko —birziklatzeari edo konpostatzeari buruzkoak kasu—, beharrezkoa da bigarren mailako hondakinen xedea jakitea, eta informazio hori ez da |

[7] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | jasotzen sisteman. Garapen horrekin, hain justu, informazio hori sisteman sartzea lortzen da GHKren lankidetzarekin. Alderdi hori 2023an landu zen.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.266 €* |
| **BEHATOKIA-3** | Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua) | Aurrerapen maila<br><br>*11.495 €* |
| BEHATOKIA-3.1 | Hondakinak hondakindegietan biltegiratzearen, erraustearen eta baterako erraustearen gaineko zergaren inpaktua Gipuzkoako Lurralde Historikoan | · Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak hondakinak hondakindegietan biltegiratzearen, erraustearen eta baterako errausketaren gaineko zerga berri bat ezartzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoan zuzenean aplikatzekoa. Beharrezkoa da zerga berri horren inpaktua zein den jakitea, legea ikuspegi horretatik aztertzea, baita sortutako eta kudeatutako hondakinen azterketa egitea ere (udal eta industria hondakinak), dela lurraldearen barruan, dela kanpoan. Horretaz gainera, beharrezkoa da horren inpaktu ekonomikoa zein den jakitea ere (bai hondakinak sortzen dituztenen ikuspegitik, zergaren ordaintzaile gisa, bai administrazio unitatetik, zerga biltzaile den aldetik). Lan horretan zerga ereduaren azterketa, Gipuzkoako egoeraren diagnostikoa eta lurraldeko eragin ekonomikoaren balorazioa bildu ziren.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 11.495 €* |
| BEHATOKIA-3.2 | Hondakinen datuak argitaratzea | · 2023an zehar, udal hondakinen sorrerarekin lotutako datuak bildu, aztertu eta argitaratu dira. Eta, zehazki, 2022. urteko inbentarioari dagozkion datuak eman dira argitara. Horiek hedatzeko bideak honako hauek izan dira, batez ere: Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea, departamentuaren sare sozialak, prentsa oharrak argitaratzea eta Trantsizio Ekologikoko Departamentuko arduradunen agerraldiak.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **BEHATOKIA-4** | Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin | Aurrerapen maila<br><br>0 € |

| | | |
|---|---|---|
| BEHATOKIA-4.1 | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren bilera | · Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiak ez zuen bilerarik egin 2023an. |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 0* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **BEHATOKIA-5** | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipen txostenak idaztea | Aurrerapen maila   18.138 € |
| BEHATOKIA-5.1 | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren 2023ko jarraipen txostena idaztea | · 2024. urtean idatzitako txosten honetan jasotzen da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako ekintzetatik 2023. urtean egindakoen jarraipena. Jasotako zenbatekoa txosten honi dagokiona da, baina 2024an kontabilizatu da.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua:* 18.138 € |
| **BEHATOKIA-6** | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordea abian jartzea | Aurrerapen maila   0 € |
| BEHATOKIA-6.1 | Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen bilera. | · 2023an, maiatzaren 5ean eta uztailaren 18an egin ziren Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen bilerak.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **BEHATOKIA-7** | Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea: Prebentzio Astea, informazio eta sentsibilizazio kanpaina orokorrak, programa bakoitzaren eta eragileen kanpaina espezifikoak koordinatzea, eta abar. | Aurrerapen maila   172.414 € |

| | | |
|---|---|---|
| BEHATOKIA-7.1 | Informazio eta sentsibilizazio kanpaina Debabarreneko ikastetxeetan | · Debabarreneko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan informazio eta sentsibilizazio kanpaina egitea, hezkuntza komunitatea gaikako bilketaren eta birziklatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. Ekintza horretan, ikastetxe bakoitzeko patioan utzitako hondakinen ezaugarriak aztertu zituzten, gaikako bilketari buruzko informazio totemak ipini zituzten, eta konposta banatu zuten.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[8] |
| BEHATO KIA-7.2 | Sentsibilizazio kanpaina Sasieta Mankomunitatean | · Mankomunitatean sentsibilizazio kanpaina bat egin zuten gaikako bilketa sustatzeko. Hiru esparrutan banatu zen:<br>· Sentsibilizazio kanpaina orokorra, batez ere etxebizitza guztietarako, dibulgazio elementuak postontzietan banatzearen bidez.<br>· Sentsibilizazio kanpaina espezifiko bat, eskualdean merkataritza erro handienak dituzten udalerrietako saltoki, zerbitzu eta erakundeentzat (Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi). Kanpaina horretan banakako bisitak egin ziren, eta mankomunitateko saltokiei banakako erabilerarako ematen zaizkien edukiontzien hustuketa kontrolatzeko sistema bat ezarri zen. Sistema hori TAG RFID bidez hornitutako edukiontzi edo ontziak identifikatzean oinarritzen da, bai eta mankomunitateko plataformari datuak irakurtzeko eta transmititzeko sistema batean ere (etorkizunean sortze bidezko ordainketa ezartzeko oinarrizko sistema).<br>· Berariazko sentsibilizazio kanpaina bat, merkataritza establezimenduetara soilik zuzendua, banakako bisiten bidez. Horren barruan, gaur egungo gaikako bilketa areagotzea sustatu nahi izan zen, egurra bereizita biltzeko sistema gaineratuta.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[9] |
| BEHATO KIA-7.3 | Udal informazioa zabaltzeko informazio panel elektronikoak jartzea Ordizian | · Informazio panel elektroniko bat jartzea, udal informazioa zabaltzera eta paper hondakinak sortzea prebenitzera bideraturik.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[10] |
| BEHATO KIA-7.4 | Informazio panel elektroniko bat instalatzea | · Informazio panel elektroniko bat jartzea, udal informazioa zabaltzera eta paper hondakinak sortzea prebenitzera bideraturik. |

[8] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua[9] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua[10] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | udal informazioa zabaltzeko Erauskin plazan | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[11] |
| BEHATO KIA-7.5 | Eskolak biribilduz | · Birziklatze tailerrak egitea ikastetxeetan, kudeaketa indizeen hobekuntzak *upcycling* bidez ikusarazten saiatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[12] |
| BEHATO KIA-7.6 | FarmerFish erronka ikasgeletan | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren helburua da ingurumen hezkuntza sustatzea adin goiztiarretan. Horretarako, “Farmer Fish erronka” proiektua jarri zuen abian 2023an Gipuzkoako ikastetxeetan, ingurumenaren babesaz eta garapen jasangarriaz kontzientziatutako pertsonak prestatzea helburu harturik.<br>· Proiektu horretan, bioekonomia zirkularrari buruzko onlineko tailerrak eta ikastaroak egin ziren irakasleentzat. Era berean, FarmerFish kitak banatu ziren ikastetxeetara. Kit hori bioekonomia zirkularreko sistema didaktiko bat da, miniatura formatukoa, ikasgeletan FarmerFish erronka praktikoki garatzeko oinarri gisa baliatzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 26.862 €* |
| BEHATO KIA-7.7 | Gipuzkoan etxeko olioaren birziklapena sustatzeko kanpaina | · Abenduaren 11n eta 23an, olioaren gaikako bilketa eta birziklapena sustatzeko kanpaina bati ekin zitzaion Gipuzkoako zenbait herritan. Horretarako, kanpainarako berariaz errotulatutako ibilgailu bat alokatu zen. Ibilgailu horrek laguntzaile baten zerbitzuak izan zituen jarduerak iraun zuen bitartean.<br>· Kanpaina zabaltzeko, 5.000 triptiko inprimatu ziren. Era berean, 7.000 inbutu entregatu zituzten.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 29.972 €* |
| BEHATO KIA-7.8 | Udako ikastaroak: Jasangarritasuna ETEetan, nola bihurtu aukera errentagarri | · 2023ko ekainaren 6an egindako jardunaldian, zenbait ikuspegi planteatu ziren, helburu gisa harturik ETEentzat negozioaren etorkizuneko bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko aukera bilakatzea jasangarritasuna. Gaur egun ETEentzako jasangarritasun kontzeptuan sartzen diren alderdiei buruzko ikuspegi orokorra eman nahi izan zen. Indarrean den legeria azaldu zen, taxonomia zertan datzan, |

[11] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[12] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | zer jarduera joko diren jasangarritzat eta zein ez, eta nola egingo den trantsizioa. Horretaz gainera, jakinarazi zen esparru publikoak zer politika, laguntza eta dirulaguntza antolatzen dituen enpresa txiki eta ertainei ingurumen trantsizioan laguntzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.630 €* |
| BEHATOKIA-7.9 | Donostia Urban Fest – Kalean! 01 | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Donostia-Gipuzkoa Basketek Donostia Urban Fest – Kalean! jaialdia antolatu zuten. Helburua izan zen hiri kirolarekin, hiri kulturarekin eta merkataritza jasangarriarekin lotutako balioak sustatzea herritarren artean.<br>· Jaialdian zehar, kirol jarduerak egin ziren (3x3 saskibaloia), hiri artisten erakusketa bat izan zen Tabakaleran (hori pinturak, grafitiak eta kustomizazioa) eta industria eta merkataritza jasangarriarekin lotutako jarduerak antolatu ziren (saskibaloiarekin, nutrizioarekin eta modarekin lotutako produktu jasangarrien erakusketa eta salmenta).<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €* |
| BEHATOKIA – 7.10 | Habitataren sektoreko jasangarritasunari buruzko webgunea | · HABIC Euskadiko eta Nafarroako Ekipamendu, Diseinu eta Zuraren Klusterrarekin batera antolatutako lankidetza ekimenen artean, 2023an ere jasangarritasunaren arloko sentsibilizazioa sustatzen duten ekintzak garatzen jarraitu da Arkitektura Graduko ikasleekin. Oraingoan, habitataren sektorerako webgune espezifiko bat sortu zen, sektoreari eragiten ari zaizkion jasangarritasunaren dimentsioak barnean hartuta. Helburua zen webgune horrek HABIC Klusterraren eta HABIC Ikasgelaren webgunearen osagarri gisa funtzionatzea.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.840 €* |
| BEHATOKIA – 7.11 | Hondakinei eta klima aldaketari buruzko tailerrak | · Klima aldaketari buruzko tailerrak eta jarduerak kudeatzea eta ematea, 55 urtetik gorako jendearentzat, Donostian.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 9.000 €* |
| BEHATOKIA – 7.12 | Ekonomia Zirkularraren V. Nazioarteko Topaketa antolatzea eta egitea | · Otsailaren 1ean eta 2an izan zen Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko V. Topaketa, “Ekonomia Zirkularra. Eraldaketa azeleratuz etorkizun jasangarria lortzeko” izenarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak bultzatu zuen ekimena, eta lankide izan zituen EuRICe (Birziklatze Industrien Europako Konfederazioa), FER (Berreskurapenaren eta Birziklapenaren Espainiako Federazioa) eta Ekonomia |

| | | |
|---|---|---|
| | | Zirkularrerako Fundazioaren Patronatua. |

| | | |
|---|---|---|
| | | Topaketa Kursaalen egin zen, formatu mistoan (aurrez aurre eta online).<br>· Lehenengo jardunaldia, otsailaren 1ekoa, nazioarteko, estatuko eta tokiko adituen erakusketa eta mahaiekin egin zen, eta zenbait gai multzo jorratu ziren: Eraikuntzaren sektoreak hiri jasangarrien garapenean duen zeregina; ehungintzaren industriaren ingurumen inpaktua murrizteko joerak eta berrikuntza; ekoizteko eta kontsumitzeko modu berriak: portaerak, ekodiseinua eta kontzientziazioa; eta elikaduraren sektorea eraldatzea, etorkizun jasangarria eta osasungarria lortzeko.<br>· Otsailaren 2an eginiko bigarren jardunaldian, gai hauek jorratu ziren: Destino jasangarriak, nola aplikatu zirkulartasuna turismoan; Ekonomia zirkularreko estrategiak, enpresari aplikatuak; Unibertsitateen egitekoa etorkizunaren jasangarritasunean; eta Gazteak, ekintzailetza, etorkizuna eta enplegagarritasuna.<br>· 2023an karbono aztarna kalkulatzeko kontratua egin zen, 2024ko urtarrilaren 31tik otsailaren 1era bitartean egin zen VI. Topaketari begira.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 51.519 €* |
| BEH ATO KIA – 7.13 | Arkitektura Graduko ikasle eta lizentziatu berrientzako jasangarritasun lehiaketa | · Azken urteotan, Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoak eta HABICek (Euskadiko eta Nafarroako Habitat, Egur, Bulego eta Contract Sektoreko Klusterra) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan jardun dute berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta jakintza sortu eta eraldatzearekin lotutako zenbait jardueratan. Lurraldean arkitektura jasangarriaren eta produktu berritzaileen diseinua eta garapena sustatzera bideratuak izan dira horiek guztiak.<br>· Ekimen horien artean, 2023an jasangarritasunaren arloko sentsibilizazio ekintzekin jarraitu da Arkitektura Graduko ikasleen artean. Arkitektura Graduko ikasle eta lizentziatu berrientzako jasangarritasun lehiaketa antolatu da. Lehiaketa hori garatzeko, HABIC Klusterraren zerbitzuak erabili dira.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.417 €* |

<table>
<tr>
<td>BEH<br>ATO<br>KIA<br>–<br>7.14</td>
<td>Material naturalei, espazio irekiei eta landarediari buruzko jardunaldia</td>
<td colspan="2">· Arkitekturan eta espazio irekietan material naturalen eta landarediaren erabilerari buruzko jardunaldi tematiko bat egitea. Montserrat Pueblita izan zen jardunaldi horretako hizlaria, Mexikoko Gensler Mexicoko zuzendarikidea. BEHATOKIA-7.13 ekintzarekin loturik.<br>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.025 €</td>
</tr>
<tr>
<td>BEH<br>ATO<br>KIA-<br>7.15</td>
<td>Hitzarmena tokiko saltokiekin</td>
<td colspan="2">· Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioaren arteko lankidetza 2022an gauzatu zen, bi urterako hitzarmen bat sinatuta. Hitzarmen horrek Dendatu programaren jarraipena jasotzen zuen 2023rako, bai eta hedabideetan zabaltzea eta sentsibilizatzea ere. Era berean, ekintza horiek programa estrategiko eta sektorialetan integratzea aurreikusten zuen (kanpo ekintzako plan bat barne).<br>· Hala, altzarien (Emaus Fundazioarekin erabilitako altzarien bilketa) eta elikaduraren (elikagai hondar gutxiago sortzea) merkataritza sektoreetan zentratu zen bereziki Dendatu programa 2023an.<br>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 21.000 €</td>
</tr>
<tr>
<td>BEHATO KIA-8</td>
<td colspan="2">Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.</td>
<td>Aurrerapen maila<br><br>169.577 €</td>
</tr>
<tr>
<td>BEHATO KIA-8.1</td>
<td></td>
<td colspan="2">· Aurreko urteetan bezala, 2023an ere zenbait informazio, komunikazio eta sentsibilizazio ekintza egin ziren, azaroaren 18tik 26ra bitartean antolaturiko Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan. Zehazki, jarduera hauek egin ziren (banaka deskribatuko ditugu jarraian):<br>· Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioa<br>· Moda Jasangarriaren VIII. Desfilea<br>· GK Recycling karpa<br>· Elikagaien Bankua aintzatesteko ekitaldia<br>· Proiektuak Gipuzkoan izaniko emaitzak aurkezteko jardunaldia<br>· Komunitate Zirkularrak Sortzen izeneko jardunaldia<br>· “Gastronomia jasangarrirantz: berrikuntza eta lankidetza ekinean” jardunaldia<br>· Ekonomia Zirkularra Moldatzen<br>· Olioa birziklatzeko kanpaina<br>· EWWR komunikabideetan eta sareetan zabaltzeko antolaketa eta kudeaketa orokorra<br>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 169.577 €</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioa | · Afari Jasangarri eta Solidarioaren III. Edizioa Mahaia sukaldarien kolektiboarekin eta Basque Culinary Centerrekin (BCC) lankidetzan egin zen. Helburua izan zen elikagaien xahuketari buruzko kontzientziazioa areagotzea eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzat dirua biltzea. Ekitaldi honek lurraldeko sektore ekonomiko, instituzional eta sozialetako eragile adierazgarrienak bildu zituen. |
| Moda Jasangarriaren VIII. Desfilea | · Azaroaren 25ean egin zen Moda Jasangarriaren VIII. Desfilea, eta moda jasangarriaren GK Green Fashion Gipuzkoako klusterreko kide diren diseinatzaileen bildumak aurkeztu ziren.<br>· Naturkliman egin zen, eta parte hartu zuten diseinatzaileen artean ageri dira NAW, MOCLAN, MAIDER ALZAGA, GIOVANNA BITTANTE, KOTOI, AM BIKO ESTUDIO, EMAUS eta ELI-TWO. |
| GK Recycling karpa | · Karpa hartan, GK Recycling birziklapenaren klusterreko bederatzi enpresak egiten dituzten produktuak eta prozesuak erakutsi zituzten, barnean harturik haien garapenetan aplikatutako irizpide ekologikoak eta zirkularrak. Zehazki, enpresa hauek parte hartu zuten: Bilibin Circular, Ekotrade (Moyua), Sutargi-Deko social, Asfaltia (Grupo Campezo), Ekomodo, Ekogras, Asmatu, Mater eta Arregi. |
| Elikagaien Bankua aintzatesteko ekitaldia | · 2009. urteaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetzan ari da Azken Minutua programa garatzeko. Programa horren bidez, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak merkataritza erakunde laguntzaileen soberakinak biltzen ditu: hain justu ere, dagoeneko merkaturatu ezin diren arren, kontsumitzeko egokiak direnak.<br>· Egindako lana aintzatesteko, enpresa laguntzaileak aitortzeko ekitaldi bat egin zen 2024ko azaroaren 20an, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Azken Minutua programan egindako lanagatik. Aintzatespen horretan, diplomak eman zituzten. |
| Proiektuak Gipuzkoan izaniko emaitzak aurkezteko jardunaldia | · Ekonomia Zirkularrerako Fundazioak “Gipuzkoako Udal Hondakinen kudeaketaren jarraipen eta alerta sistema. 2025-2035 aldirako helburuen betetze maila” proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen.<br>· Azterlan horren helburua da Europar Batasunak hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloan ezarritako helburuak betetzeko neurri positiboen ezarpen maila ikustea, eta estatuan lorturiko emaitzak Gipuzkoan lortutakoekin alderatzen dira. Emaitzak jakinarazteko, jardunaldi bat egin zen azaroaren 24an Gipuzkoako Ingurumen Gunearen ikasgela didaktikoan, eta 50 pertsona bertaratu ziren. |

| | |
|---|---|
| Komunitate Zirkularrak Sortzen jardunaldia | · Jardunaldi hori azaroaren 22an egin zen Naturkliman, Emaus Gizarte Fundazioarekin lankidetzan, eta Haziguneak prozesuaren parte da. Prozesu horrek zenbait elkarrizketa gune (publikoak eta pribatuak) antolatzea proposatzen du, komunitate zirkular bat kolektiboki hausnartzeko eta partaidetzan oinarriturik eraikitzeko.<br>· Egun horretan bertan lan tailer bat egin zen, eta komunikazioa izan zuten eztabaidagai komunikabide konbentzionalen ikuspegitik —kazetaritza eta ikerketa abiapuntu hartuta, baita sare sozialetatik abiatuta ere—. Kontatzeko modu berriak eraikitzera bideratutako tailer bat izan zen, komunikazioko adituekin landua.<br>· Kanpainak publizitate iragarki bat izan zuen, Gipuzkoako Onda Cero irrati katean. |
| "Gastronomia jasangarrirantz: berrikuntza eta lankidetza ekinean" jardunaldia | · Gastronomia Jasangarriari buruzko jardunaldia, Basque Culinary Centerren lankidetzarekin egina. Helburua izan zen eragile guztien arteko lankidetzari erreparatzea, ekiten hasteko eta elikadura sistema jasangarriago eta erresilienteago batera igarotzeko. Askotariko alderdiak landu ziren, hala nola *hub*en eta *living lab*en balioa jasangarritasunaren arloko soluzio berritzaileak sortzeko eta transferitzeko. |
| Ekonomia Zirkularra Moldatzen | · Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduera honetan, Gipuzkoako Lanbide Heziketako 9 ikastetxetako ikasleek eskulturak eta erakusketak egin zituzten, ekonomia zirkularra edo birziklapena ulertzeko modua islatzeko. Erakusketa horrekin batera, diplomak banatu zituzten. Ikastetxe hauek parte hartu zuten:<br>· CIFP Plaiaundi LHII<br>· Bitoriano Gandiaga Fundazio (Oteiza)<br>· PEE elkartea. Ortzadar ikastetxea<br>· Oñati BHI<br>· Mendibil Prestakuntza Zentroa<br>· CIFP MEKA LHII<br>· Kardala LHII<br>· Izarraitz Lanbide Heziketa<br>· Gizarte Berrikuntzako LHII |
| Olioa birziklatzeko kanpaina | · Sentsibilizazio jarduera horrek datu eta informazio garrantzitsuak eman zituen herritarrak olioa bereizita biltzearen garrantziaz kontzientziatzeko. Kanpainan sustapen oparia bat eman zuten: laranja koloreko inbutu bat, leloa eta ezkutua dituena. Hondakinen Prebentziorako Europako Astean, 3.000 inbutu banatu ziren birziklapen karpan. |
| EWWR komunikabideetan eta sareetan zabaltzeko antolaketa eta kudeaketa orokorra | · Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea Gipuzkoan antolatzeko eta kudeatzeko, zenbait zerbitzu behar izan ziren:<br>· Publizitate bannerra Gipuzkoagaur atarian 7 egunez, EWWR asteari loturiko 4-5 eduki informatibo zabaltzea Gipuzkoagaur zerbitzuaren webgunean eta sare sozialetan<br>· Elkarrizketak egitea |

| | |
|---|---|
| | · Komunikazio bisualeko euskarriak egitea ekitaldietan erabiltzeko<br>· Publizitate iragarkiak zabaltzea<br>· *Noticias de Gipuzkoa* egunkariaren 2023ko azaroaren 17ko edizioan 4 orrialdeko gehigarri bat kontratatzea |

| | | |
|---|---|---|
| **BEHATOKIA-9** | Zenbait udalerrik egindako esperientzia arrakastatsuak behatokiaren bidez identifikatzea eta zabaltzea. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea. | Aurrerapen maila<br><br>0 € |
| BEHATOKIA-9.1 | Behatokiaren bidez esperientziak identifikatzea eta zabaltzea | · 2023an ez da egin ekintzarik ildo horretan.<br>*Aurreratze maila: % 0* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **BEHATOKIA-10** | Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea | Aurrerapen maila<br><br>0 € |
| BEHATOKIA – 10.1 | Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea | · Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoak 2022ko azaroaren 3an deitutako jarraipen bilerara joatea.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |

#### 5.1.2.2 Prebentzio programa

Programa horrek 22 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2023an horietatik 19 gauzatzea zegoen aurreikusita. Programaren aurrerapen-maila, 2023an gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

| | | |
|---|---|---|
|  | **PREBENTZIO PROGRAMA** | |
| **PREBENTZIOA-1** | Hondakinen sorkuntzagarik ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta. | Aurrerapen maila<br> |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 0 € |
| PREBEN TZIOA-1.1 | Ordainketa politikak bultzatzea | · Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko lerro bat du. | |

| | | |
|---|---|---|
| | hondakinak sortzeagatik, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta. | Haren bidez, sortzen denaren araberako ordainketa bultzatzeko proiektuei ekiten zaie. Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako ekintzak garatzeko aurrekontua baduen arren, toki erakundeek ez dute egin gai horrekin loturiko proiekturik.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **PREBENTZIOA-2** | Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin; I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak...); kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...). | Aurrerapen maila<br><br><br>66.445 € |
| PREBENTZIOA-2.1 | GK Green Fashion Moda Jasangarriaren Klusterraren jardunaldia: Aurrera Egiteko Partekatzea. Modaren etorkizuna: kudeaketa, berrikuntza eta entzutea | · GK Green Fashion Moda Jasangarriaren Klusterrak jardunaldi bat egin zuen, modaren munduak (ehungintzak eta osagarriek) ingurumenean duen inpaktuari buruz herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko: "Aurrera Egiteko Partekatzea. Modaren etorkizuna: kudeaketa, berrikuntza eta entzutea" Jardunaldi hori maiatzaren 4an egin zen DV Gunean.<br>· Jardunaldi horrek interpretazio zerbitzua izan zuen gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 2.352 €* |
| PREBENTZIOA-2.2 | "Publikoak sentsibilizatzea: jasangarritasuna modaren sektorean" hezkuntza programa | · Ehungintzako hondakinen sorrera murriztea da Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren erronka nagusietako bat, etxeko hondakinen kudeaketari dagokionez. Ildo horretan, besteak beste, prebentzio kanpaina bat garatu zuten, ikasleen artean moda kultura eta kontsumo arduratsua eragiteko eta auzi horren gaineko sentsibilizazio eta heziketa lana egiteko. Ekintza horretarako, "Publikoak sentsibilizatzea: jasangarritasuna modaren sektorean" hezkuntza programa garatu zen Gipuzkoako ikastetxeetan.<br>· Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak Cristóbal Balenciaga Fundazioaren laguntza izan zuen hezkuntza programa hori gauzatzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €* |
| PREBENTZIOA-2.3 | Lan tailerra "Substantzia kimikoak | · Lan tailer bat egitea online, ehungintzako prozesu hezeetan baliatzen diren substantzia kimikoei buruz, batez ere kotoia, poliesterra eta poliamida prozesatzearekin |

| | | |
|---|---|---|
| | ehungintzako prozesu hezeetan” | lotuta. Prestakuntza ekintza hori |

| | | |
|---|---|---|
| | | GK Green Fashion klusterra osatzen duten enpresetako profesionalei zuzendua izan zen bereziki.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.598 €* |
| PREBENTZIOA-2.4 | Onlineko ikastaroa: “Moda jasangarriaren, zirkularraren eta birsortzailearen hastapenak” | · Onlineko ikastaro bat egin zen (2 orduko 6 jardunaldi) moda jasangarri, zirkular eta birsortzaileari buruz. Prestakuntza ekintza hori GK Green Fashion klusterra osatzen duten enpresetako profesionalei zuzendua izan zen bereziki.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.200 €* |
| PREBENTZIOA-2.5 | GK Green Fashion klusterrak Be Veggie! azokan parte hartu zuen | · Modaren munduak (ehungintza eta osagarriak) ingurumenean duen inpaktuari buruz herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko, egokitzat jo da GK Green Fashion Moda Jasangarriaren klusterra babesten jarraitzea, Ficoba Fundazioak 2023ko abenduaren 8an, 9an eta 10ean antolatu zuen BeVeggie! azokan.<br>· Babesletza proposamenak 48 m²-ko salmenta stand bat eta produktu erakusketa bat biltzen ditu, Fast Fashion edo moda azkarraren kontsumoaren arazoaz kontzientziatzeko eta Modaren Klusterreko diseinatzaile gipuzkoarren proposamenak bistaratzeko. Era berean, gonbidapenak eman dira eta komunikazio eta hedapen ekintza batzuk antolatu dira Aldundiko Jasangarritasun Departamenturako eta GK Green Fashionerako.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 33.811 €* |
| PREBENTZIOA-2.6 | Moda Jasangarriaren VIII. Jardunaldia | · Urriaren 26an moda jasangarriko beste jardunaldi bat egin zen DV Gunean, Donostia Moda Festival jaialdiaren barruan. Moda Jasangarriaren Jardunaldiaren zortzigarren edizioa, gai hauek landu ziren: Inpaktu positiboa duen ehungintza industria diseinatzea.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.334 €* |
| **PREBENTZIOA-3** | Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz. | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBENTZIOA-3.1 | Bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriaren | · Bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriaren azoka.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. |

| | | |
|---|---|---|
| | azoka | |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €13* |
| PREBENTZIOA-3.2 | Merka2dasoa 2023 | · MERKA2DASOA azoka solidarioaren beste deialdi bat egin da 2023an. Txingudiko Zerbitzuak 2008az geroztik ari da azoka hau egiten, eta egoera onean dauden bigarren eskuko objektuak salerosteko gune bat gaitzen du.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €14* |
| PREBENTZIOA-3.3 | Bigarren eskuko merkatuak Eibarren, erabilitako objektuen berrerabilera sustatzeko. | · Bigarren eskuko merkatu bat egin zen Eibarren, erabilitako objektuen berrerabilera sustatzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €15* |
| PREBENTZIOA-3.4 | Erdialdeko hiri azoka txikia | · Azoka honen bidez, aukera eman zen bigarren eskuko arropa, tokiko artisautza, berrerabilitako edo birziklatutako materialekin egindako produktuak eta merkatuan saldu ezin diren eta hondakin bihurtzen diren stock-produktuak erosteko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €16* |
| PREBENTZIOA-3.5 | Ekialdeko hiri barrutiko azoka txikia | · Azoka honen bidez, aukera eman zen bigarren eskuko arropa, tokiko artisautza, berrerabilitako edo birziklatutako materialekin egindako produktuak eta merkatuan saldu ezin diren eta hondakin bihurtzen diren stock-produktuak erosteko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €17* |
| PREBENTZIOA-3.6 | Culinary Zirkularra | · Ostalaritzan erabilera bakarreko ontziak gutxiago erabiltzea sustatzeko proiektua, eta, horretarako, |

[13] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [14] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako

aurrekontua 15 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 16 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua17 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | teknologia berriak baliatzea (ontziak ematen eta erabilitakoak jasotzen dituzten makinak, zikloa osatuz).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[18] |
| **PREBENTZIOA-4** | Gipuzkoako Foru Aldundian erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak. | Aurrerapen maila<br><br><br>16.788 € |
| PREBENTZIOA-4.1 | Kontratazio berde publikoan inpaktu hirukoitzeko jasangarritasun irizpide berriak betetzearen eta horrekin loturiko balioak lortzearen jarraipena | · Ezkio-Itsasoko saneamendu proiektua kontratatzeko prozesuan inpaktu hirukoitzeko adierazleak eta dokumentazioa ezartzea (hau da, ingurumenekoak, zirkularrak, sozialak eta ekonomikoak).<br>· Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia erosketa berdea eta zirkularra bultzatzen ari da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazioetan ingurumenarekin, zirkulartasunarekin eta alderdi sozial eta ekonomikoekin loturiko irizpideak txertatzeko. Departamentuaren saneamendu obren proiektu bat hautatu da, eta haren kontratazio esparruan sartu dira irizpide horiek. Era berean, prestakuntza modulu bat txertatu da.<br>· Gauzatutako proiektuaren lehen bi faseak 2022an egin zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hirugarren fasea 2023an gauzatu da, eta COCIRCULAR izan zuen laguntzaile.<br>· Proiektu hori Gipuzkoa % 100 Zirkularra proiektu esperimentalaren barruan gauzatua da, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren itzalean.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:* 16.788 € |
| **PREBENTZIOA-5** | Ekodiseinua bultzatzea | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBENTZIOA-5.1 | Ekodiseinua bultzatzea | · 2023an ez da gauzatu ekintza espezifikorik prebentzio programaren barneko PREBENTZIOA-5.1 ekintza honetan, egokitzat jo baita ekintza horiek ekonomia zirkularreko dirulaguntza lerroaren bidez birbideratzea toki erakunde eta mankomunitateei, bai eta |

[18] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko V. Topaketa egitea ere.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **PREBEN TZIOA-6** | Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBEN TZIOA-6.1 | Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakinen kudeaketari (banaketari) eta sistemei buruzko azterlana. | · Azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakinen kudeaketa (bereizketa) eta sistemen inguruan egindako lanen ondoren, 2023an egindako azterlanetan identifikatutako neurri batzuk gauzatu ziren, bereziki bereizketarekin loturik.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **PREBEN TZIOA-7** | Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekiko norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetza hitzarmen izendunak). | Aurrerapen maila<br><br><br>966.637 € |
| PREBEN TZIOA-7.1 | Dirulaguntzen deialdia (laguntzen foru programa). | · Departamentuak urtero ematen dituen dirulaguntzen deialdia. Lerro horietako bat ekonomia zirkularrekoa da. Trantsizio Ekologikoko Departamentuak arlo horretan duen dirulaguntza lerro bakarra da, eta udalei, mankomunitateei, enpresei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua da.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua:* 966.637 € |
| **PREBEN TZIOA-8** | Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa. | Aurrerapen maila<br><br><br>36.000 € |
| PREBEN TZIOA-8.1 | Ekonomia zirkularreko bekak | · 2023an 3 beka eman ziren. Beka horiek gai hauei buruzkoak izan ziren:<br>· Bigarren mailako larru berria garatzea, Ekolber teknologiadun zurratze soberakinak birbalorizatuz.<br>· Poliamidadun ehun-hondakinen birziklapen kimikoa. |

| | | |
|---|---|---|
| | | · Biorremediatzea mikroalgekin, elikagaien balio katean hondakin organiko eta ez-organikoen kutsadura arazoak konpontzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 36.000 €* |
| **PREBENTZIOA-9** | Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emaileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak. | Aurrerapen maila<br><br><br>255.985 € |
| PREBENTZIOA-9.1 | Hitzarmena Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin | · Gipuzkoako Foru Aldundiaren Trantsizio Ekologikoko Departamentua 2007an hasi zen Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lanean merkaturatu ezin diren elikagaiak biltzeko. Era berean, elikagaiak dohaintzan ematearen alde lan egiten duten erakundeen taldean sartzen joan dira elikaduraren sektoreko enpresak. Hala, lankidetza emankor horri, partikularrengandik zuzenean bildutako diru bilketei eta Europako Laguntza Funtsaren ekarpenei esker, 2.500.000 kilogramo elikagai baino gehiago biltzen dira urtero batez beste programa horien barruan. Ildo horretan, 2.298.932 kilogramo banatu ziren 2020an, 2.783.000 kilogramo 2021ean eta 2.509.576 kilogramo 2022an.<br>· 2023ko lankidetza hitzarmenaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan elikagaiak biltzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta egungo sarea mantentzeko beharrezko gastuak finantzatzea lortu da.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 250.000 €* |
| PREBENTZIOA-9.2 | Patatak ematea Gipuzkoako Elikagaien Bankuari | · 38.670 kg patata erosi zaizkio Patateros Solidarios taldeari, Gipuzkoako Elikagaien Bankurako. 2023ko udaberriko dohaintza kanpainan 15 kg-ko 243 zaku erosi ziren, eta udazkenekoan, berriz, 15 kg-ko 235 zaku.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 5.985 €* |
| **PREBENTZIOA-10** | Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag). | Aurrerapen maila<br><br><br>30.665 € |

| | | |
|---|---|---|
| PREBENTZIOA-10.1 | Jardunbide egokiak saltokietan elikagai hondakinak prebenitzeko | · Gipuzkoako saltokietan elikagai hondakinak prebenitzeko jardunbide egokiak ezartzea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[19] |
| PREBENTZIOA-10.2 | Sukalde Komunitarioen Konfederazioa | · Sukalde komunitarioen erabilera eta funtzionamendua hobetzeko proiektua, elikagaiak alferrik galtzea prebenitzera eta ontzi berrerabilgarrien erabilera sustatzera bideratutako ekintzak gauzatzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[20] |
| PREBENTZIOA-10.3 | Biziola, xahutzetik eraldaketara | · Biziola kooperatibako erabiltzaileek elikagaien hondakinak murrizteko azterketa (tokiko elikagaien ekoizpenak jaso eta banatzen dituzte kooperatiba horretan).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[21] |
| PREBENTZIOA-10.4 | Biharko Ogia | · Biharko Ogia proiektua elikagaien hondakinak arintzean oinarritzen da, hezkuntzaren eta ekintza praktikoaren bidez, eta, eginahal horretan, elikagaiak kontserbatzeko teknikak baliatzen ditu, hala nola hartzidura edo deshidratazioa.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[22] |
| PREBENTZIOA-10.5 | Gure planeta zaintzen: Elikagaiak alferrik galtzea, jasangarritasuna eta klima aldaketa | · Proiektu honek jarraipena ematen dio 2021az geroztik garatzen den egitasmoari, Gipuzkoako ikasleak elikagaien hondakinen inguruan sentsibilizatzeko lanekin loturik. 2023an 53 tailer eman dira ikastetxeetan, eta 320 neskak eta 339 mutilek parte hartu zuten.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 12.505 €* |
| PREBENTZIOA-10.6 | Gourmet Bag, 2023 | · Jatetxe establezimenduetan soberakinak biltzeko eredu bat hedatzeari buruzko Gourmet Bag 2023 proiektua egitea, elikagaiak alferrik ez xahutzea helburu gisa harturik. |

[19] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [20] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [21] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [22] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako

aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | · Proiektu horrek barnean hartzen ditu mapaketa eta hautaketa bat egitea kanpainaren irizpideei jarraikiz, materiala ezartzea eta ematea sistemarekin bat egiten duten establezimenduetan, bai eta komunikazio neurri batzuk hartzea ere.<br>· Aurtengo edizioarekin, sistema beste 5 herritara zabaldu da (Elgoibar, Legazpi, Oñati, Ordizia eta Zumarraga). Herri bakoitzeko, Gourmet Baga 5 establezimendutan zabaltzea aurreikusten da.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €* |
| **PREBENTZIOA-11** | Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea. | Aurrerapen maila<br><br><br>17.908 € |
| PREBENTZIOA-11.1 | Rexcatering: soberan gelditutako elikagaiak | · Elikagaiak xahutzea prebenitzeko ekintza, soberan geratutako errazioak janaria banatzeko makina batean aprobetxatzen dituena.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[23] |
| PREBENTZIOA-11.2 | Debabarreneko hiru jantokitan elikagaiak xahutzea saihesteko proiektu pilotua | · Debabarreneko hiru jantoki eredutan elikagaiak xahutzea saihesteko proiektu pilotua. Proiektu horretan, diagnostikoak eta ekintza (eta prebentzio) planak egin ziren Debabarreneko hiru jantokitan (ospitalea, zaharren egoitza eta ikastetxea), Eibarko hezkuntza konplexurako planteatutako banaketa sisteman sartu ahal izateko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[24] |
| PREBENTZIOA-11.3 | Laguntzeko berreskuratzea | · Elikagaiak xahutzea prebenitzeko ekintza, eta, horretarako, komertzialak ez diren elikagaiak biltzea eta jantokietan pertsona behartsuenen eskura jartzea. |

[23] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[24] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[25] |
| PREBENTZIOA-11.4 | Hotel sektoreko elikagai hondarrak neurtzea | · Hondakinen prebentzioa da hondakinak tratatzeko Europako hierarkiaren lehen maila, eta, horren barruan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da elikagaiak xahutzearen kontrako borroka. Proiektuaren helburu orokorra da Gipuzkoako Lurralde Historikoko hotel sektorean elikagaien hondakinak neurtzea eta kuantifikatzea.<br>· 2022an, oztopoak identifikatu ziren establezimendu horietako elikagai hondakinak kuantifikatzeko, bai eta haien sentsibilizazio mailan ere. Orotara 101 establezimendu elkarrizketatu ziren, eta horietatik 6 prest agertu ziren diagnostiko eta neurketa bat egiteko, hondakinak gutxiago sortzeko eta prebenitzeko.<br>· 2023an, 6 hotel horietan diagnostikoak eta neurketak egiteari ekin zitzaion.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.908 €* |
| **PREBENTZIOA-13** | Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzea eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpiproduktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpiproduktuak berrerabilita. | Aurrerapen maila<br><br><br>63.840 € |
| PREBENTZIOA-13.1 | Hitzarmena Basque Culinary Center (BCC) Fundazioarekin | · Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldeko beste erakunde batzuekin batera, eta, bereziki, Basque Culinary Centerrekin orpoz orpo eta gastronomiaren arloan duen zentro teknologiko sektorialaren bitartez, aprobetxatu egin nahi du Donostia eta Gipuzkoa gastronomiaren nazioarteko erreferentzia direla, elikadura sistemaren zirkulartasunerako trantsizioa bultzatzeko. Lehendik ere bada lankidetza egonkorra Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta BCCren artean, 2019az geroztik egindako lanaren ondorioz.<br>· 2022an, Gipuzkoako eta inguruko lurraldeetako elikagaien ekoizpenaren identifikazio eta inbentario proiektua garatu zen. Proiektu hori Basque Culinary Centerrek 2021-2023 aldirako Ibilbide Orrian garatu duen Proiektuen Proposamen Planean dago jasota, Gipuzkoako elikadura sistema zirkulartasunerantz bideratzeko. |

[25] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | · 2023an, 2021-2023 aldirako Ibilbide Orri horretan jasotako proiektuak garatzen jarraitzeko, BBCk bi proiektu hauek gauzatu zituen:<br>· “Gipuzkoako elikadura sistemaren diagnostikoa – Elikagai kontsumoa”<br>· “Gastronomia sareak Gipuzkoan”.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 63.840 €* | |
| **PREBENTZIOA-14** | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzi hondakin gutxiago sortzeko erosketa jardunbide egokiak sustatzeko: erosketarako ontzi berrerabilgarriak, ontziratu gabeko produktuak, plastikozko poltsak, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab. | | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBENTZIOA-14.1 | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, erosketa jardunbide egokiak sustatzeko, eta, hala, ontzi hondakin gutxiago sortzeko | · 2023an, merkataritza sektoreko hondakinen prebentzioarekin eta kudeaketarekin lotutako garapenarekin jarraitu zen, Dendatu proiektuarekin (ikusi BEHATOKIA-7.15 ekintza). Proiektu hori gauzatzeak izan du oihartzunik herritarrengan, bertan garatutako ekintzen izaera kontuan hartuta: hedabideetan zabaltzea eta sentsibilizatzea eta Dendatu integratzea udalerri eta auzoetan egindako jardueretan.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* | |
| **PREBENTZIOA-16** | Itzuli daitezkeen botilen erabilera sustatzea uraren, sagardoaren eta ontziratutako ardoaren sektoreetan. | | Aurrerapen maila<br><br><br>8.470 € |
| PREBENTZIOA-16.1 | Sagardo botilak itzultzeko sistemari buruzko bideragarritasun azterlana | · PREBENTZIOA-16 ekintzak ur, sagardo eta ardo ontziratuaren sektoreetan botila itzulgarrien erabilera sustatzea aurreikusten du. Horretarako, sagardo botilei dagokien zatian, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia Sagardogile Elkartearekin harremanetan jarri zen 2023an, eta laguntza eskatu zien proiektu hori garatzeko. Proiektu hori gauzatzean, sagardo botilak itzultzeko sistemari buruzko bideragarritasun azterlana egiteari ekin zitzaion.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 8.470 €* | |
| **PREBENTZIOA-17** | Salmentarako jardunbide egokiak sustatzea, merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sortzeko. | | Aurrerapen maila<br><br> |

| | | |
|---|---|---|
| | | 0 € |
| PREBENTZIOA-17.1 | Merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sor dadin sustatzea | · Txosten honetako PREBENTZIOA-14.1 ekintzan jasotakoaren ildotik, aipatu behar da Dendatu proiektuaren barruan merkataritza sektorean ontzien hondakin gutxiago sortzeko salmenta jardunbide egokiak sustatzeari ekin zitzaiola.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **PREBENTZIOA-18** | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko. | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBENTZIOA-18.1 | Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko. | · GAIKAKO BILKETA-4.1 ekintzan, hondakin arriskutsuen prebentzioari ekin zitzaion hondakinen gaikako bilketa sustatzeko komunikazio kanpainaren barruan.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **PREBENTZIOA-20** | Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea: sakabanatutako zaborraren jatorri fokuak aztertzea, ibaietan, hondartzetan eta itsasoan zaborra prebenitzeko eta murrizteko neurriak definitzea eta garatzea, eta herritarrak sentsibilizatzeko neurriak hartzea. | Aurrerapen maila<br><br><br>441.291 € |
| PREBENTZIOA-20.1 | Sakabanatutako zaborren metaketa fokuak prebenitzeko eta zuzentzeko dirulaguntza deialdia | · Hondakinak kudeatzeko udal eta mankomunitateei zuzenduriko dirulaguntza deialdia, zaborrak metatzeko foku sakabanatuak prebenitzen eta zuzentzen laguntzeko jarduerak gauzatzeko. Zehazki, kostalde, ibai eta lehorreko espazioetan metaturiko zabor sakabanatuen fokuak garbitzeko lanak finantzatzera bideratuta dago, bai eta zaborrak kontrolik gabe isurtzea edo horiek ibai ingurunera iristea eragozten duten elementuak jartzera ere. Dirulaguntza horien bidez, Gipuzkoan 37,05 tona hondakin biltzea lortu zen.<br>· Guztira 15 proiektu garatu dira:<br>1. Alegiako ibai eremuak garbitzea.<br>2. Hernaniko Urumea ibaian sakabanatutako zaborraren bilketa eta garbiketa integrala. |

| | | |
|---|---|---|
| | | 3. Oria ibaia garbitzea Legorretako herrigunetik eta industrialdeetatik igarotzen den tartean.<br>4. Gaintxurizketa errekan sakabanatutako zaborra metatzeko guneak garbitzea, prebenitzea eta zuzentzea.<br>5. Urretxu udalerrian sakabanatutako zaborrak prebenitzeko eta murrizteko ekintzak.<br>6. Alegiako Langaur naturgunea garbitzea.<br>7. Oiartzungo ibai-erreketan eta naturaguneetan sakabanatutako hondakinak biltzea.<br>8. Iruran Oria ibaia garbitzeko proiektua.<br>9. Urola eta Ibai-Eder ibaietan sakabanatutako zaborrak biltzea Azpeitian.<br>10. Urola ibaiko zaborrak garbitzea eta prebentzio-neurriak ezartzea Urretxu-Zumarraga tartean.<br>11. Urola ibaiaren garbiketa eta sareak, Legazpin.<br>12. Hernaniko hondakin fokuen garbiketa eta prebentzioa.<br>13. Oria ibaia garbitzea eta sareta jartzea zaborra saihesteko, Tolosan.<br>14. Eibarko ibai espazioetan sakabanatutako zaborren metaketa fokuak garbitzea.<br>15. Urola ibaiko zaborren metaketa fokuak garbitzea Azkoitian.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 102.500 €* |
| PREBENTZIOA-20.2 | Gipuzkoako hainbat ibai tartetan eta kostaldeko espazioetan ageri diren zabor sakabanatuak biltzea eta tratatzea | · 2023an, Jasangarritasun Sailak hainbat jarduera egin zituen sakabanatutako zaborrarekin lotuta. Zehazki, honako hauek:<br>· Sakabanatutako zaborra biltzeko eta kudeatzeko ekintzak, partaidetzan oinarrituriko aurrekontuetatik datorren zuzkidurari eta departamentuaren berezko zuzkidurari esker egindakoak. Ekintza horien barruan sartzen dira edukiontziak jartzea, hondakinak biltzea eta tratamendu plantan kudeatzea, eta, ildo horretan, hondakinak ahalik eta gehien baloratzera bideratutako bereizketa sustatzea.<br>· Lehorreko fokuetarako Gipuzkoako zabor sakabanatuen inbentarioa eguneratzeko azterlan bat egitea.<br>· Sakonetako itsas zaborren jatorria aztertzea. |

| | | |
|---|---|---|
| | | · Sakonetako itsas zaborraren eta flyscharen aparteko garbiketa.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 262.249 €* |
| PREBENT ZIOA-20.3 | Itsas Gela elkartearekin elkarlanean aritzeko proiektua | · Itsas Gela elkartearekin lankidetzan, Seabin Pasaiak, Zero Zabor Uretan elkarteak eta Itsas Zaintza Sareak gauzatutako hiru proiektu landu ziren.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 46.542 €* |
| PREBENT ZIOA-20.4 | Lankidetza hitzarmena Surfrider Foundation Europerekin | · 2023an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Surfrider Foundation Europen Espainiako Ordezkaritzak lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten, eta, haren bidez, Surfriderrek ekintza hauei ekitea adostu zuten:<br>· Itsasoko zaborren monitorizazioa, OSPAR protokoloaren arabera, Donostiako Murgita, Getariako Orrua eta Mutrikuko Alkolea kaletan. Horren barruan sartzen da itsas zaborren bilketa, karakterizazioa eta kuantifikazioa, OSPAR protokoloaren arabera, 4 alditan: neguan, udaberrian, udan eta udazkenean.<br>· Kostaldea eta Zu hezkuntza proiektu transbertsalarekin jarraitzea, ikasgeletan sentsibilizazio lanarekin eta tokian tokiko sentsibilizazio ekintzekin segitu ahal izateko.<br>· Abenduan, Boluntarioen Eguna dela eta, ekitaldi bat antolatu zen kanpainetan parte hartzen duten boluntarioak aintzatesteko eta, aldi berean, Gipuzkoako kostaldearen arazoa eta egoera ezagutarazteko eta jatorrian prebenitzeko ekintzak sustatzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 30.000 €* |
| **PREBENT ZIOA-21** | Etxekoak ez diren sorgailuak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruzko esperientzia pilotuak egitea (borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin) Birziklatze Klusterraren esparruan. | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| PREBENT ZIOA-21.1 | Borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin: Donostia Shops eta merkataritza federazioa | · Merkataritza Federazioarekin (BEHATOKIA-7.15) sinatutako hitzarmenaren barruan, eta Donostia Shops elkarteari dagokionez, 2023an bi proiektu daude ekonomia zirkularreko dirulaguntzaren esparruan. Bi proiektu horiek bigarren eskuko azoka txikiak egitera daude bideratuta.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |

| | | |
|---|---|---|
| **PREBENTZIOA-22** | Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak bultzatzea, eta, horretarako, obra eta zerbitzuen kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ipintzea. | Aurrerapen maila   0 € |

| | | |
|---|---|---|
| PREBENTZIOA-22.1 | Birziklatutako eta berrerabilitako produktuen sarrera bultzatzea | · PREBENTZIOA-4.1 ekintzaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazioetan ingurumenarekin, zirkulartasunarekin, eta gizarte eta ekonomia alderdiekin loturiko irizpideak txertatzea aztertu zen, zehazki departamentuaren saneamendu obren proiektu batean. Garatutako ekintzen artean, proiektu zehatz honetan birziklatutako eta berrerabilitako produktuen sarrera bultzatzea nabarmentzen da.<br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |

#### 5.1.2.3 Kudeaketa programa

##### 5.1.2.3.1 Gaikako bilketarako programa

Programa horrek 4 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2023an horietatik 3 gauzatzea zegoen aurreikusita.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

| | |
|---|---|
|   | **GAIKAKO BILKETARAKO PROGRAMA** |

| | | |
|---|---|---|
| **GAIKAKO BILKETA-1** | Mankomunitateei laguntzea hondakinen gaikako bilketarako eredu eta sistema oso eraginkorrak eta jasangarriak bultzatzen eta etengabe hobetzen, eta, horretarako, neurri hauek sustatzea: ereduen eta sistemen azterketa bateratua, lurralde mailako irizpideen koordinazioa, erabiltzaileen ikuspegiaren azterketa eta integrazioa (genero irizpideak barne), sistema adimendunak txertatzea eta emaitzen ebaluazioa. | Aurrerapen maila   0 € |

| | | |
|---|---|---|
| GAIKAKO BILKETA-1.1 | Sentsorika eta digitalizazioa ezartzea etxeko hondakinen eta antzekoen bilketan | · Debabarrena eskualdean sentsorika eta digitalizazioa ezartzeko proiektua, etxeko hondakinak eta antzekoak biltzeko zerbitzuan.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €26* |
| GAIKAKO BILKETA-1.2 | Tamaina handiko gaiak biltzeko seinaleak jartzea | · Tamaina handiko gaiak biltzeko seinaleztapena instalatzeko proiektua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €27* |
| GAIKAKO BILKETA-1.3 | Hondakinen gaikako bilketa sustatzea eta errefusa murriztea | · Udalerrian gaikako bilketa sustatzeko kanpaina, oro har. 2022an sistema berri bat ezarri zen sarrailekin eta txartelekin, eta, herritarren erantzuna positiboa izan bada ere, beharrezkotzat jo zen herritarren pertzepzioa bertatik bertara ezagutzea, frakzio organikoaren bilketa sustatzen jarraitzeko.<br>· 2023an, hondakinen bereizketa egokiari buruzko informazioa ematen zuten triptikoak eta eranskailuak banatu ziren, eta etxeko konpostajean parte hartzen zuten herritarrei jarraipen eta kontrol espezifikoa egin zitzaien. Proiektuan, halaber, sarrailak eta txartelak erosi ziren sistema mantentzeko (bai edukiontzi organikoetarako, bai errefuserako).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €28* |
| GAIKAKO BILKETA-1.4 | Dosi bakarreko kafe kapsulen gaikako bilketa zabaltzea | · Edukiontzi berriak jartzea dosi bakarreko kafe kapsulak gaika biltzeko, bilketa eremu berrietan zabaltzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. |

[26] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua[27] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua[28] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:*<br>*0 €*[29] |
| GAIKAKO BILKETA-1.5 | Azitaingo industrialdean film industriala jasotzeko proba pilotua | · Azitaingo industrialdeko film plastikoa biltzeko proba pilotua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:*<br>*0 €*[30] |
| GAIKAKO BILKETA-1.6 | Ecocap | · Supermerkatuetan kafe kapsulak biltzeko proiektua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:*<br>*0 €*[31] |
| GAIKAKO BILKETA-1.7 | Erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tresna txikiak bereizita biltzeko zerbitzua eremu gehiagotara zabaltzeko proiektua | · Erabilitako arropa eta tresna txiki berrerabilgarriak biltzeko zerbitzua zabaltzeko programa.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:*<br>*0 €*[32] |
| GAIKAKO BILKETA-1.8 | Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuen (GKAA) bilketa Debabarrenean | · Eskualdeko arrandegi eta harategietan Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuen hondakinen gaikako bilketa hobetzea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua:*<br>*0 €*[33] |

29 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 30 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 31 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 32

PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 33 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | | |
|---|---|---|---|
| **GAIKAKO BILKETA-2** | Mankomunitateekin batera, garbiguneen egokitzapena eta hondakinen korronte guztietarako administrazio irizpideen homogeneizazioa sustatzea eta haien erabilera bultzatzea –barnean harturik fibrozementu estrukturala, obra txikietako hondakinak eta gainerako etxeko hondakin arriskutsuak–, baita kopuru jakin batzuetatik aurrera kobratzeko aukera aurreikustea ere. | | Aurrerapen maila   0 € |
| GAIKAKO BILKETA-2.1 | Minigarbiguneak hornitzea eta instalatzea | · Minigarbiguneak materialez hornitzea eta instalatzea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[34] | |
| GAIKAKO BILKETA-2.2 | Debabarreneko Garbiguneak hobetzea | · Debabarreneko Garbiguneetan hobekuntzak egitea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[35] | |
| **GAIKAKO BILKETA-4** | Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea. | | Aurrerapen maila   0 € |
| GAIKAKO BILKETA-4.1 | Hondakinen gaikako bilketa sustatzeko komunikazio kanpaina | · Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko komunikazio kanpaina.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[36] | |
| GAIKAKO BILKETA-4.2 | Bidasos 2030 – 2. auzoa | · Bidasoa eskualdean gaikako bilketa bultzatzeko komunikazio kanpaina. Kanpainak eskualde osoarekin loturiko alderdi bat du, baina baita | |

34 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 35 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 36 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | auzora bideratutako bat ere (2. auzoa). Komunikabide orokorretan oinarritutako kanpaina bat da (prentsaurrekoa, irratia, tokiko prentsa, poster-totemak eta herritarrengana gerturatzea hezitzaileekin; gainera, inkesta bat egiten dute).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[37] |
| GAIKAKO BILKETA-4.3 | Bidasos 2030 – 3. auzoa | · Bidasoa eskualdean gaikako bilketa bultzatzeko komunikazio kanpaina. Kanpainak eskualde osoarekin loturiko alderdi bat du, baina baita auzora bideratutako bat ere (3. auzoa). Komunikabide orokorretan oinarritutako kanpaina bat da (prentsaurrekoa, irratia, tokiko prentsa, poster-totemak eta herritarrengana gerturatzea hezitzaileekin; gainera, inkesta bat egiten dute).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[38] |

### 5.1.2.3.2 Berrerabiltzeko prestatzeko programa

Programa horrek 5 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2023an horietatik 3 gauzatzea zegoen aurreikusita.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

[37] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

[38] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
|  | **BERRERABILTZEKO PRESTATZEKO PROGRAMA** | |
| **BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1** | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea. | Aurrerapen maila<br><br>100.000 € |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.1 | Hitzarmena EMAUS Gizarte Fundazioarekin | · Gipuzkoako udal hondakinak tratatzeko azpiegituren sareari dagokionez, azpimarratu behar da hiru Ekocenter horiek finkatu direla Gipuzkoan, berrerabiltzeko prestatzeko zentro nagusi gisa.<br><br>· 2023an sinatutako hitzarmenaren helburua da EMAUS Gizarte Fundazioari Irungo Ekocenterra ustiatzeko beharrezko baliabideak ematea. Hona hemen egindako jardueretako batzuk:<br><br>· Berreskuratutako hondakinak sailkatzea, ezaugarritzea eta balorizatzea; ahal dela berrerabiltzea sustatzea, eta, horretarako, bigarren erabilerako produktuak merkaturatzeko espazioak ezartzea.<br><br>· Prebentzioa sustatzeko erakusketa artistikoak.<br><br>· Brikolajera bideratutako prestakuntza jarduera praktikoak, herritar guztientzat irekiak, konponketaren kultura sustatzeko tresna gisa, objektuen bizitza baliagarria luzatzeko formula den aldetik.<br><br>· Berrerabili ezin diren piezak eta osagaiak eta tresneria berreskuratzeko eta aprobetxatzeko eremu bat kudeatzea.<br><br>· Bisita gidatuak eskola taldeekin eta elkarteekin.<br><br>*Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 100.000 €* |

| | | |
|---|---|---|
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.2 | Logistika jasangarriko modulua | · Funtzionalitate edo modulu berri baten garapena barnean hartzen duen proiektu informatikoa,<br>programa hori lehendik ere martxan zegoen, |

| | | |
|---|---|---|
| | material birziklagarriak salerosteko | eta Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen du diruz; hala, plataformako hondakinen eta azpiproduktuen trukea areagotzen laguntzen du.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[39] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.3 | Scrapershop | · Gipuzkoako Foru Aldundiak 2022an diruz lagundutako Scrapershop proiektuaren jarraipena. 2023an, proiektuak enpresen artean hondakinak eta azpiproduktuak trukatzeko programa hobetzea du helburu.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[40] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.4 | Klub Zirkularra | · Ehun kontsumoari buruzko proba pilotua, adin handiko xede publikoarentzat mailegua eta konponketa ahalbidetuz, kontsumoa murrizteko eta jantzien bizitza erabilgarria luzatzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[41] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.5 | Hobeto biltzea, gehiago aprobetxatzeko | · Ehunen eta tamaina handiko produktuen etxez etxeko bilketa berriak ezartzea, bildutako hondakinen berrerabilera eta birziklapena areagotzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[42] |

[39] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [40] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [41] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [42]

PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.6 | Hiri hondakin handiak gaika biltzea bultzatzeko plana | · Etxean sortutako tamaina handiko hondakinen gaikako bilketa bultzatzen jarraitzea helburu duen proiektua, berrerabiltzera bideratua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[43] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.7 | Prebentzioa ehun hondakinen bilketan, edukiontzi pribatu jasangarriak jarriz | · Prebentzioa ehun hondakinen bilketan, enpresetan edukiontziak jarriz. Guztira 22 erakundek parte hartu dute.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[44] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.8 | Ekonomia zirkularra sustatzea Gipuzkoan | · Ehun hondakinak berrerabiltzeko proiektua.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[45] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.9 | Hostberri Zirkularra | · Ostalaritza zentroak birgaitzea, altzairuzko elementuak (aulkiak, mahaiak eta abar) berrerabiltzea sustatuz.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[46] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.10 | Ekonomia zirkularra eta garapen jasangarriko helburuak bultzatzea elikagaien merkataritzan | · Irungo elikagaien merkataritzan zirkulartasuna hobetzea helburu duen proiektua, hondakinen sorreran prebentzioa sustatuz. |

43 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 44 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua 45 PREBENTZIOA-7.1

ekintzan jasotako aurrekontua [46] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[47] |
| **BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3** | Garbiguneen eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko. | Aurrerapen maila<br><br><br>0 € |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3.1 | Garbiguneen sarea hobetzea, berrerabiltzeko prestatzea sustatzeko | · Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunezkotzat jotzen du Garbiguneen sarean berrerabilpena sustatzea, herritarrengandik hurbil dauden gune gisa. Horretarako, udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak ematen dizkie instalazio horiek egokitzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako ekintzak garatzeko aurrekontua baduen arren, toki erakundeek ez dute egin gai horrekin loturiko proiekturik.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |
| **BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5** | Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzea (zuzenean edo berrerabiltzeko prestatu ondoren). | Aurrerapen maila<br><br><br>47.909 € |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.1 | Ekitaldi jasangarriak antolatzeko aholkularitza eta baliabideak | · Ekitaldi jasangarriak egiteko aholkularitza proiektua eta baliabideak eta bitartekoak ematea. Urola Eskualdeko ekitaldietarako berrerabil daitekeen baxera erostea, adibidez.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[48] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.2 | Ordizia hotela, zirkularra | · Hotelak ingurumen alderdiak hobetu ditu, sentsibilizazio ekintza batzuk eginda; horien artean, birziklatutako altzariak sortzea gaika bildutako edari ontzien tapoien plastikoa (polietilenoa) erabiliz (ikusi BALORIZAZIOA-1.5 ekintza). |

[47] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[48] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[49] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.3 | Erabilera bakarreko baxerarik ez Usurbilgo ekitaldi publikoetan | · Usurbilen ekitaldietan erabiltzeko ontziteria berrerabilgarria erostea. Udalaren helburua da udalerriko ekitaldi publikoetan erabilitako baxera berrerabilgarria izatea 2023tik aurrera (aiztoak, sardexkak eta koilarak).<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[50] |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.4 | Ekonomia zirkularreko estrategia, oinetakoen hondakinen balio bizitza luzatzeko | · Jasangarritasunarekin duen konpromisoari jarraikiz, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzak ekonomia zirkularra oinetakoen hondakinetara zabaldu nahi du. Hondakinen tratamenduaren Europako hierarkia kontuan hartuta, berrerabiltzea da hondakin horiekin (prebentzioaren ondoren) egin beharreko lehen aukera, baina ekintza horrek beste egokitzapen osagarri batzuk behar ditu, hala nola garbitzea eta desinfektatzea. Ildo horretan, 2023an oinetakoen hondakinak berregokitzeko merkatuari buruzko ikerketa lan aplikatu bat egin zen.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.787 €* |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.5 | ANDADE elkartearen hitzarmena | · Euskal Herriko Andade Elkarteak aktiboki lan egiten du erakunde zibil eta humanitario gisa Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko bidean, bai Gipuzkoako Lurralde Historikoan, bai Gipuzkoatik kanpo. Horretarako, Gipuzkoa 2023 Ingurumen Ekintza Plana dute.<br>· 2023. urtean, eta sinatutako hitzarmenaren arabera, jarduera hauek egin dira: |

[49] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

[50] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | · Bazkide guztien artean sentsibilizazio neurriak eta jardueraren inpaktua murrizteko neurriak ezartzea.<br>· Hobekuntzak ezartzea emisioak murrizteko planetan, energia efizientzia hobetzean eta baliabideen erabilera optimizatzean, beste eragile laguntzaile batzuekin lankidetzan aritzeko ekintzen bidez.<br>· Elkartekideen artean ingurumen kontzientzia sortzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak garatzea, ohiturak aldatzeko eta ingurunea gehiago errespetatzen duten jokabideak lortzeko.<br>· Hondakinen sorrerak eta kudeaketak giza osasunean eta ingurumenean dituen ondorio negatiboak ahalik eta gehien murrizteko ekintzak abian jartzea.<br>· Protesi banku bat sortzea, gero etorkizuneko pazienteekin edo beharra duten pertsonekin erabiltzeko, berrerabilera sustatzeko. Eta bildutako materialen gainbegiratze teknikoa, gero berrerabili ahal izateko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 8.000 €* |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.6 | Andade elkartearen protesi bankurako biltegia | · Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Andade elkarteak sinatutako hitzarmenaren esparruan (ikusi BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.5 ekintza), Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartu zuen Andade Elkartearen protesi bankuan erregistratutako materialaren zaintza eta biltegiratzea errazteko. Horretarako, lokal bat egokitu zuen Naturklimaren eraikinean biltegi gisa.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.033 €* |
| BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5.7 | Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan anputazio hondakin ortopedikoak berrerabiltzea sustatzeari buruzko txostena | · Anputazio hondakin ortopedikoen inguruko jasangarritasun konpromisoarekin jarraituz, beharrezkotzat jo da azterketa tekniko bat egitea, sektorea hobeto ezagutzeko eta, horrekin batera, berrerabiltzea ahalik eta gehien sustatzeko. Hondakinen tratamenduaren Europako hierarkiari jarraituz, berrerabiltzea izango da lehenengo aukera, baina, ezinezkoa bada, eskala horretan balorizazio materialerantz (birziklatzea) edo energetikorantz jaitsiko da.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.090 €* |

### 5.1.2.3.3 Birziklatzeko programa

Programa horrek 6 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2023an horietatik 3 gauzatzea zegoen aurreikusita. Hala ere, aurreikusi gabeko ekintza bat ere jorratu zen, BIRZIKLATZEA-2. Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

| | | |
|---|---|---|
|  | | **BIRZIKLATZEKO PROGRAMA** |
| **BIRZIKLATZEA-2** | Konpostaje eta/edo biometanizazio instalazioen beharrak aztertzea. | Aurrerapen maila<br><br>0 € |
| BIRZIKLATZEA-2.1 | Bergarako komunitate konposta egiteko eremuak berritzea | · Bergarako komunitate konposta egiteko eremuak berritzea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[51] |
| BIRZIKLATZEA-2.2 | Oñatiko komunitate konposta egiteko tokiak egokitzeko proiektua. IV. fasea. | · Oñatiko komunitate konposta egiteko tokiak egokitzeko proiektua. IV. fasea.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>· *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[52] |
| BIRZIKLATZEA-2.3 | Lurretik hartutakoa, lurrera bueltan | · Komunitate konpostaren inguruko kanpaina Zaldibian, azken urteotan udalerrian konpostaje instalazio komunitarioak sustatzeko eta sortzeko egindako bultzadari jarraipena emateko. |

[51] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

[52] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<table>
<tr><td></td><td></td><td colspan="2">· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €[53]</td></tr>
<tr><td>BIRZIKLATZEA-4</td><td colspan="2">Obra publikoan birziklatutako agregakinen erabilera sustatzea</td><td>Aurrerapen maila<br><br><br>0 €</td></tr>
<tr><td>BIRZIKLATZEA-4.1</td><td>Agregakin birziklatuak sartzea obra publikoan</td><td colspan="2">· Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso nabarmena du bere obra guztietan agregakin birziklatuak aplikatzearen inguruko baldintzatzailea sartzeko. Horregatik, ekonomia zirkularrak saneamendu obretan duen benetako aplikagarritasuna frogatu eta praktikara eraman zen. Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiak sustaturiko obra batean.<br>· Gaur egun, aktiboki ari gara lanean lizitazioen jarraipena egiteko eta obretan agregakinak benetan erabiltzeko.<br>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €</td></tr>
<tr><td>BIRZIKLATZEA-5</td><td colspan="2">Gipuzkoako birziklapenaren klusterra (GK Recycling) bultzatzea ekonomia zirkularra sustatzeko: klusterra zabaltzea Gipuzkoako zentro teknologiko, unibertsitate, fundazio eta enpresa gehiago sar dadin; plan estrategikoa garatzea; I+G+Baren arloko ekintza pilotuak bultzatzea, irizpideak eta tresnak sustatu eta ikusarazteko; nazioartekotzeko eta hedatzeko ekintzak antolatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioarekin eta beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan.</td><td>Aurrerapen maila<br><br><br>345.016 €</td></tr>
<tr><td>BIRZIKLATZEA-5.1</td><td>Kafea</td><td colspan="2">· Kafea proiektua 2017. urtetik dago martxan, eta kafe kapsulak birziklatzeko eta balorizatzeko teknologien garapena du ardatz. 2023an, kafe kapsulen hondakinen birziklapena hobetzen saiatu da, eta edukiontzi birziklatu berriak, prozesatu berriak eta materialei bestelako irteerak bilatzen ahalegindu da.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak</td></tr>
</table>

[53] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[54] |
| BIRZIKLATZEA-5.2 | Donostia Zinemaldiko alfonbra gorria hornitzea eta, ondoren, poltsa gisa birziklatzea | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua elkarlanean ari da 2022ko Donostiako Nazioarteko Zinemaldia antolatzen, eta, hartara, ingurumen jasangarritasuneko irizpideak ezartzen dira jaialdi horren edizioetan. Helburu horrekin, besteak beste, desfilean erabilitako alfonbra gorriaren hornidura finantzatu da (15 biribilki, luzean 65 m eta zabalean 2,06 metro dituztenak).<br>· 2023an, polipropilenoa erabili zen alfonbra birziklatu eta birziklagarri hori fabrikatzeko. Konponbide horren ingurumen interesa latexa kentzean eta haren ordez kopolimero birziklatu bat jartzean oinarritzen da. Aldi berean, Emaus Fundazioak birziklatu egin zituen, 1.380 eskuko poltsa egiteko. Gainera, poltsak salduta lortutako dirua Gipuzkoako Elikagaien Bankuari helarazi zitzaion, eta izaera sozial horrekin ekonomia zirkularreko ingurumen ekintza biribildu zen.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.103 €* |
| BIRZIKLATZEA-5.3 | Tote Bagak diseinatu eta egitea | · Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan sortutako produktu birziklatuak erabili eta sustatu zituen 2023an zehar antolatu zituen ekitaldietan. Kasu honetan, sustapen materiala jarri zen antolatutako kanpaina eta ekitaldietan banatzeko; hau da, Tote Bag motako poltsak.<br>· Orotara, tankera horretako 1.000 poltsa egin ziren.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 11.011 €* |
| BIRZIKLATZEA-5.4 | Bilduma Zirkularra proiektu pilotua | · Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzaren erronka nagusietako bat da ehun hondakinen sorrera murriztea eta Gipuzkoako produkzio sistema eraldatzea, eta, hala, ekonomia zirkularra bultzatuko duen eredu baterantz egitea.<br>· Xede hori lortzeko, besteak beste, Bilduma Zirkularra proiektua bultzatu da. Haren bidez, |

[54] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | | produktuaren bizi ziklo osoa kontuan izan duten jantzi bilduma bat diseinatu da. Inpaktu txikiko material birziklatuen hautaketatik (plastikozko botiletatik datorren poliester birziklatua), denboraz kanpoko produktu jasangarrien ekodiseinutik eta osagai guztien monomaterialtasunetik abiatuta.<br>· Horren helburua da produktua errazago birziklatzea bizitzaren amaierara iristen denean, eta, hala, lehengaia ahalik eta denbora luzeenean mantendu ahal izatea, hondakin bihur ez daitezen.<br>· Horretarako, Ternua eta Loreak Mendiak enpresen laguntza izan dugu.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 36.300 €* |
| BIRZIKLATZEA-5.5 | Hitzarmenak unibertsitate ekin | · Unibertsitate hezkuntzaren sektorean askotariko lankidetza hitzarmenak sinatzea. Zehazki, zentro hauekin:<br>· CEIT Zentro Teknologikoa Elkartea<br>· TECNUN, Ingeniaritza Eskola (Nafarroako Unibertsitatea)<br>· Deustuko Unibertsitatea<br>· Euskal Herriko Unibertsitatea<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 272.500 €* |

| | |
|---|---|
| CEIT Zentro Teknologikoa | · Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta CEIT Zentro Teknologikoaren artean orain arte egindako lankidetza lanek arrakasta izan dutenez, egokitzat jo zen 2023an hitzarmen berriak sinatzea. Zehazki, bi sinatu ziren:<br>· Lehen hitzarmen horrek aukera eman zuen tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetan agertzen diren lur arraroetatik eratorritako elementuak berreskuratzeko ikerketa ildoan lanean jarraitzeko. Aurten, lur arraro arinak (neodimioa eta praseodimioa) eta astunak (disprosioa eta terbioa) modu selektiboan berreskuratzeko ekintzak egin ziren, motor elektrikoetatik edo ekipo elektronikoetatik ateratako benetako neodimioa/burdina/boroa (NdFeB) imanak erabiliz, zeinean materialaren osaera askoz ere konplexuagoa baita. Erauzketa prozesuaren garapenak argi eta garbi bereizitako bi etapa izan zituen. Lehenik eta behin, aurretratamendu bat, ezpurutasunak bereizteko eta ondorengo digestioa erraztuko duen iman hauts fin bat lortzeko. Material horri CEITek aurretik azido azetiko eta oxalikoen bidez garatutako prozesu hidrometalurgikoa aplikatu zitzaion, purutasun handiko lur arraroak lortzeko. |

| | |
|---|---|
| | Bigarren etapa batean, lur arraroak imanen gainerako materialetatik (kobrea, nikela, burdina, kobaltoa...) bananduta zeudela, lur arraro astunak eta arinak bereizteko aukera ebaluatu zen disolbatzaile jasangarriak erabiliz, hala nola disolbatzaile eutektikoak. Erreaktiboen, emisioen eta disolbatzaileen erabilera minimizatzeko prozesua optimizatu zen, zirkulartasun handiagoa lortzeko.<br>· Bigarrena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bioekonomia sustatzeko. Haren bidez, ikerketa, garapen eta berrikuntzako (I+G+B) ildo bat ireki zen, eta ekintza hauek gauzatu ziren: Gipuzkoako biomasa industrialaren ekoizle nagusien inbentario xehatua, eta egungo kudeaketa moduaren azterketa, enpresa ekoizleentzako bisitak barne; biomasa mota desberdinen karakterizazioa eta biometanoa ekoizteko bakoitzaren potentziala zehaztea; biometanoa ekoizteko potentzial optimizatuaren azterketa pilotua, biomasa desberdinak nahastuta; eta teknologia optimo eta efizientearen aurrediseinua egitea, Gipuzkoaren kasuan, biometanoa ekoizteko, egungo egoera eta etorkizuneko biomasak sartzeko aurreikuspena aintzakotzat hartuta. |
| TECNUN | · TECNUN zentroa enpresen trantsizioa bultzatzen saiatzen da bere ikerketen bidez, eta eredu linealetik eredu zirkularrera igaro daitezen ekologia eta sinbiosi industrialak garatzen ditu. Hala, aspaldian dihardu ikerketa ildo horretan lanean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Hori horrela, aurreko proiektuetan kontzeptu hori landu du, eta industria sinbiosiaren garapenak dakartzan trukeak errazteko tresnak garatu ditu. Materialak trukatzeko plataforma bat garatu dute (Market Zirkularra), eta produktuen zirkulartasunerako inpaktuak diagnostikatzeko eta neurtzeko tresnen analisia egin dute. 2023an, ekintza hauek egin dituzte:<br>· Sinbiosi industrialaren kasuak eta literatura berrikustea, metodologiak edo inpaktuen neurketa barnean hartuta.<br>· Eremuko sinbiosi industrialaren kasuak berrikustea.<br>· Emaitzen txostena egitea eta zabaltzea. |
| Deustuko Unibertsitatea | · Deustuko Unibertsitatearekin sinaturiko lankidetza hitzarmen baten bidez, ikerketa ildo batean jarraitzen da lanean, zeinaren helburua baita elikagaien xahutzea kuantifikatzeko metodologia bat zehaztea eta aplikatzea, hiri hondakinak kudeatzeko sistemetatik abiatuz. Lankidetza horren emaitza gisa, 2022an azterlan bat egin zen Gipuzkoan alferrik galdutako elikagai hondakinak kuantifikatzeko metodologia bat diseinatzeko. Azterlan horretan, hondakin organikoak sortzeko ereduak (xahutzea barne), horien ingurumen inpaktua eta prebentzioa aztertu ziren. Era berean, metodologia komun baterantz aurrera egiteko beharrean sakondu zen, emaitzak konparatu ahal izateko, bai eskualde berean denboran zehar, bai eskualdeen artean. |

| | |
|---|---|
| | · Aurreko proiektuan lortutako emaitzak kontuan hartuta, 2023an konparagarritasun maila aztertzeari ekin zitzaion, bi azterketa kasuren bidez:<br>· 2022an Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako karakterizazioaren emaitzen azterketa eta 2020an lortutako emaitzekin alderatzea.<br>· Antzeko ezaugarriak dituzten Gipuzkoako eta Bizkaiko bi udalerritako emaitzak alderatzea. Bizkaiko kasuan, FOODRUS proiektuan jasotako datuak hartu dira. |
| Euskal Herriko Unibertsitatea | 2023an lau hitzarmen sinatu ziren Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Hauexek dira:<br>· 1.- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Gipuzkoako Atala. Aurretik sinatutako hitzarmenen jarraipen gisa, egokitzat jo da hitzarmen berri bat sinatzea, Unibertsitate Ikasgela – Jasangarritasuna eta Ekonomia Zirkularra Kudeatzeko Enpresa Gela dinamizatzen jarraitzeko. Hona hemen Ikasgelak 2023an garatu dituen jarduera ildoak:<br>a. Lankidetza graduko eta graduondoko prestakuntza esparruan, ekonomia zirkularraren erronketara egokitutako talentua sortzeko eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko, alderdi hauek barnean hartuta: unibertsitate enpresa prestakuntza duala, titulu propioen eta espezializazio tituluen proposamenak, bizitzan zeharreko prestakuntza, eta gradu eta master amaierako praktikak eta lanak egitea.<br>b. Ekonomia zirkularrari buruzko saioak eta jardunaldiak batera antolatzea.<br>c. Ordezkaritza eta lan foroetan, biltzarretan, azoketan eta abarretan batera parte hartzea, autonomia erkidegoan, estatuan zein nazioartean.<br>d. Azterlan eta ikerketetan lortutako emaitzak zabaltzea (argitalpenak, web orriak eta abar).<br>· 2.- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola. Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuek eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Ekonomia Zirkularraren Ikasgela jarri zuten martxan 2020an. Horri jarraipena emateko, 2023an ekintza hauek gauzatu ziren:<br>a. Lankidetza graduko eta graduondoko prestakuntza esparruan, ekonomia zirkularraren erronketara egokitutako talentua sortzeko eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko, alderdi hauek barnean hartuta: neurrira eginiko prestakuntza, eta gradu eta master amaierako praktikak eta lanak egitea.<br>b. Ekonomia Zirkularraren sektorearentzat interesgarriak diren saioak eta jardunaldiak batera antolatzea. |

| | |
|---|---|
| | c. Sektorerako gaurkotasuna duten gaiei buruzko azterketa, analisi edo ikerketa akademikoak egitea, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako irakasleen eta ikasleen parte hartzearekin.<br>d. Ordezkaritza eta lan foroetan, biltzarretan, azoketan eta abarretan batera parte hartzea, autonomia erkidegoan, estatuan zein nazioartean.<br>e. Azterlan eta ikerketetan lortutako emaitzak zabaltzea (argitalpenak, web orriak eta abar).<br>· Bestalde, Ingeniaritza Fakultateko Ingeniaritza Kimiko eta Ingurumen Sailak berariazko hitzarmen bat sinatu du ehun hondakinetako plastikoak birziklatzeko estrategiak ikertzeko eta garatzeko. Hauek dira hitzarmen horren barruan 2023an garatutako ekintzak:<br>· Analisi bibliografikoa.<br>· Hondakinak hautatzea eta ezaugarritzea<br>· Hondakina birziklapen kimikorako prestatzea.<br>· Birziklatze kimikoa: poliamida despolimerizatzea, erreakzio produktuak ezaugarritzea, erreaktiboak/disolbatzaileak balioztatzea eta ebaluatzea.<br>· Polimero berrien sintesian erreakzio produktuaren aplikagarritasuna ebaluatzea.<br>· Hedapena.<br>· 3.- Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa eta HABIC (Euskadiko ekipamendu, altzari, eta diseinu klusterra) lankidetzan aritu dira, eta zenbai jarduera jarri dituzte abian berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta jakintza sortu eta eraldatzearekin lotuta, guztiak ere lurraldean arkitektura jasangarriaren eta produktu berritzaileen diseinua eta garapena sustatzera bideraturik. Lankidetza horren ondorioz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuarekin sinatutako hitzarmenari esker, UPV/EHU-HABIC Enpresa Ikasgela izeneko enpresa berritzailea sortu zen, eredu jasangarri eta arduratsu baterantz eraldatzeko lan egiteko; horretarako, ekodiseinuan oinarrituriko eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta sistemak proposatu dituzte, eta sektorearen lehiakortasunerako abantailak sortu dituzte, jasangarritasuna bektore gisa hartuta. 2023an, mundu akademikoaren, praktika arkitektonikoaren eta enpresa garapenaren arteko harremana areagotzera bideratutako ekintzak egin dira, eta, hala, ikasleak trebatzeko eta, ondoren, lan merkatura bideratzeko espazio baten funtzionamendua babestu da. Ekintza horiek urtero zehaztutako Jarduera Planaren arabera gauzatu dira. |

| | | |
|---|---|---|
| BIRZIKLATZEA-5.6 | Hitzarmena Donostia Zinemaldiarekin | · Donostia Zinemaldiak 2020an hasi zuen jaialdi jasangarriago bat egiten hasteko trantsizioa ingurumenari dagokionez. Proiektu hau Zinemaldiaren puntu estrategiko nagusien artean dago, eta, azken hiru urte hauetan, erakundeak zenbait neurri hartu ditu energiaren, mugikortasunaren, kontratazioen eta |

| | | |
|---|---|---|
| | | materialen erabileraren inguruan, karbono aztarna murrizteko. |

| | | |
|---|---|---|
| | | Kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren helburuen artean dagoela Gipuzkoan ingurumena kudeatzeko eta babesteko politikak zehaztea eta sustatzea, 2023an egokitzat jo zen bi aldeek hitzarmen hau sinatzea.<br>· Hitzarmenari esker, honako ekintza hauek gauzatu dira:<br>· Material % 100 birziklatuz eta birziklagarriz egitea 1.840 m² alfonbra gorri, Kursaal jauregiaren kanpoaldean eta María Cristina hoteletik Victoria Eugenia antzokira doan tartean jartzeko. (Ikusi BIRZIKLATZEA-5.2)<br>· Donostia Zinemaldiak esleitutako enpresak moketaren lehenbiziko jarraldia garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea.<br>· “Xahutzerik gabe” proiektua sustatzea: Gipuzkoako Elikagaien Bankuari emandako poltsak fabrikatu ziren. Poltsa horiek egiteko materiala alfonbrak egiteko baliaturiko 1.840 m²-ak erabili ziren.<br>· Prentsaurreko bat egin zen lankidetzaren berri emateko, eta, prentsa ohar bat ez ezik, sare sozialetako argitalpenak ere egin ziren.<br>· Birziklatutako poltsak aurkezteko ekitaldia Gipuzkoako Elikagaien Bankuan.<br>· Lankidetza hitzarmenaren barruan, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Gipuzkoako borondatezko karbono funtsean parte hartzea sartzen da, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko eta konpentsatzeko. Donostia Zinemaldiak 25.000 euroko ekarpena egin zion funts horri 2023an.<br>*Aurreratze maila: % 100  Gauzatutako aurrekontua: 17.103 €* |
| **BIRZIKLATZEA-6** | Esperientzia arrakastatsuak trukatzea, identifikatzea eta zabaltzea, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea. | Aurrerapen maila<br><br> |

| | | |
|---|---|---|
| | | 0 € |
| BIRZIKLATZEA-6.1 | Esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko ekintzak | · GFAk etengabeko ekintzak egiten ditu esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko, Gipuzkoako Birziklatze Klusterraren bidez (GK Recycling). Baina, zalantzarik gabe, nabarmendu beharrekoa da lurraldean egiten den Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko Topaketa, nazioarteko oihartzuna kontuan hartuta. Kongresu horren deskribapena eta irismena txosten honen BEHATOKIA-7.12 ekintzan jasotzen dira.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |

### 5.1.2.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia

Programa horrek bi jarduera biltzen ditu guztira, zeinak 2023an gauzatzeko baitzeuden aurreikusita.

Programaren aurrerapen maila, 2023an gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

| | | |
|---|---|---|
| <br> | **BALORIZAZIO PROGRAMA: MATERIALA ETA ENERGIA** | |
| **BALORIZAZIOA-1** | I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko. | Aurrerapen maila<br><br><br>36.300 € |
| BALORIZAZIOA-1.1 | Tapoiak biltzeko kanpaina Ordizian, ondoren altzariak egiteko | · Ordizian hiri altzariak fabrikatzea, bereizita bildutako plastikozko tapoietatik abiatuta.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[55] |

[55] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| BALORIZAZIOA-1.2 | Birziklapen kimikorako eta plastikoen ekoizpen jasangarrirako estrategiak | · Birziklatze kimikoko eta plastikoen ekoizpen jasangarrirako estrategia posibleekin lotutako azterlana.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[56] |
| BALORIZAZIOA-1.3 | Texcir | · Ehunak birziklatzea, *merchandising* produktuak diseinatzeko eta fabrikatzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[57] |
| BALORIZAZIOA-1.4 | Tapoiak biltzeko kanpaina Aita Larramendi ikastolan, ondoren altzariak egiteko | · Aita Larramendi ikastolan altzariak fabrikatzea eta egitea, gaika bildutako plastikozko tapoietatik abiatuta.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[58] |
| BALORIZAZIOA-1.5 | Polimeercir | · Ekodiseinu proiektua, polietilenozko hiri altzari birziklatuak sortzeko.<br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[59] |
| BALORIZAZIOA-1.6 | Elkarte gastronomikoetan sortutako olio erabiliaren bilketa areagotzea eta kalitatea hobetzea, | · Duela gutxi egindako olio karakterizazioen arabera, ostalaritzako bilketa desegokien ehunekoa % 15etik % 25era bitartekoa da. Baina elkarte gastronomikoen kasuan, egoera nabarmen okerragoa da, % 50 inguru baino ez baita olioa batez beste. Gainerako % 50a janari hondarrak, |

[56] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [57] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [58] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua [59]

PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| | ekodiseinatutako iragazki baten bidez eta prestakuntza ekintza | garbiketa produktuak eta ura dira. Arazo hori konpontzeko, proiektuaren esparruan, iragazki bat ekodiseinatu da (iragaziz irabazi) olioa jatorrian iragazteko, zeina olioa biltzeko bidoietara lotzen baita.<br><br>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[60] |
| BALORIZAZIOA-1.7 | Materia birsortzaileei buruzko azterlana | · Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorrak, balorizazio material eta energetikorako programan, BALORIZAZIOA-1 ekintza biltzen du, ekonomia zirkularrarekin eta bioekonomiaren sustapenarekin lotutako I+G+Bko jarduerak bultzatzeko. Gai horri dagokionez, azterlan bat egin zen 2023an, Gipuzkoan ehunki birsortzaileak erabiltzearen bitartez bioekonomia bultzatzeko.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €* |
| BALORIZAZIOA-1.8 | Gipuzkoako plastiko sektorearen diagnostikoa | · Zenbait joerak —hala nola petrolioaren eta lehengaien prezioen igoerak eta Europako Batzordeak sustatutako ekonomia zirkularraren bultzadak— ingurune egokia sortu dute plastikoa birziklatzeak garrantzi handiagoa har dezan. Inguruabar horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia neurriak hartzen ari da bere hondakin plastikoen balorizazio materialaren tasak hobetzeko. Sortu nahi duen neurrien artean dago, esaterako, Plastikoaren Gipuzkoako Berrikuntza Gunea sortzea.<br>· Testuinguru horretan, interesgarritzat jo zen lurraldean sortzen diren hondakin plastikoen kopurua eta tipologia ezagutzea, baita material horrek Gipuzkoako ekoizpen sarean duen inpaktuaren berri izatea ere.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €* |
| **BALORIZAZIOA-2** | Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak. | Aurrerapen maila   370.265 € |

60 PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

| | | |
|---|---|---|
| BALORIZAZIOA-2.1 | Gipuzkoako Ingurumen Gunearen kontrol epidemiologikoa | · Balorazio energetikorako instalazioarekin lotutako azterketa epidemiologikoa egitea. 2023an, azterlanak lau lan ildo aurreikusten ditu: immisioa, biomarkatzaileak, populazioen osasunaren azterketa orokorra eta dioxinen, furanoen eta poliklorobifeniloen (PCB) ebaluazioa, elikagaietan eta lurzoruan.<br>· Kontrol horiek gauzatzeaz gainera, BIOGIPUZKOA Osasun Ikerketako Institutuak (lehen BioDonostia) 4 urterako lehiaketa publikoaren bidez garatutako proiektu honen irismenaren barruan, proiektuaren azken txostena ere idatzi da. Hala, 2024ko lehen seihilekoan aurkeztu da. Proiektuaren likidazio ekonomikoa egiteko, azken faktura bat egin zen (340.566 euroen osagarria), 56.847 euroko zenbatekoarekin 2024an.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 340.566 €* |
| BALORIZAZIOA-2.2 | Gipuzkoako Ingurumen Guneko laginak biltegiratzea eta mantentzea | · 2019an amaitu zen "Gipuzkoako Ingurumen Gunearen zati den balorizazio energetikoko instalazioari buruzko azterketa epidemiologikoa" proiektuan lortutako lagin biologikoen soberakinak 2023an biltegiratzeko eta mantentzeko zerbitzua.<br>· Laginak Euskal Biobankuan gordetzen dira, etorkizuneko azterlan edo ikerketetan erabiltzeko beharra sortzen bada ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako bi azterlan epidemiologikoek odolaren eta gernuaren analisiak egitea dakarte, biomarkatzaileei buruzko 2. ikerketa lerroan.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 2.401 €* |
| BALORIZAZIOA-2.3 | Gipuzkoako Ingurumen Gunearen analisiak eta kontrolak | · Dioxinen, furanoen eta DLPCBSen kontzentrazioaren egoerari buruzko azterketa egitea tokiko ekoizpeneko elikagaietan eta lurzoruan.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.102 €* |
| BALORIZAZIOA-2.4 | Epidemiologian espezializatutako aholkularitza lanak esleitzeko prozesuaren preskripzio teknikoen baldintza agiria eta balioespen teknikoa | · Gipuzkoako Ingurumen Gunearen datozen urteetako funtzionamenduaren barruan (2024-2027), epidemiologian espezializatutako aholkularitza lanak esleitzeko prozesuaren preskripzio teknikoen baldintza agiria eta balioespen teknikoa idazteko lanak egitea. |

| | | |
|---|---|---|
| | | *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 9.196 €* |

### 5.1.2.4 Deuseztapena optimizatzeari buruzko programa

Programa horrek bi jarduera biltzen ditu orotara, eta horietako bat 2023an gauzatzeko dago aurreikusita.

Programaren aurrerapen maila, 2023an gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze mailari erreparatuta, % 100ekoa da.




**DEUSEZTAPENA OPTIMIZATZEARI BURUZKO PROGRAMA**

| | | |
|---|---|---|
| **DEUSESTATZEA-1** | Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea. | Aurrerapen maila   0 € |
| DEUSESTATZEA-1.1 | Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea. | · Azken urteetan, baita 2023an ere, bigarren mailako hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea bermatzeko ekintzak garatzen ari dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Gaur egun, Gipuzkoako Ingurumen Gunetik datozen errautsak baino ez dira isurtzen, inertizatu ondoren.<br>*Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €* |

## 5.2 Betetze-mailaren laburpen orokorra, 2023. urtea

Aurreko atalean jasotakoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke 2023an ekintzak gauzatzeko aurrerapen globalaren maila % 97ra iristen dela, eta aurrekontuaren betetze mailari dagokionez, berriz, % 110era. Atxikita taulan ikus daiteke nola banatzen diren bi portzentaje horiek programen arabera.

*19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerapen maila, 2023. urtea*

| | Euroak | | Aurrerapen maila | |
|---|---|---|---|---|
| **Programa** | **Aurreikusia** | **Erreala** | **Ekintzen arabera** | **Aurrekontuaren arabera** |
| Behatoki programa | 228.000 | 375.890 | % 78 | % 165 |
| Prebentzio programa | 1.938.000 | 1.904.019 | % 100 | % 98 |
| Gaikako bilketarako programa | 50.000 | 0 | % 100 | % 0 |
| Berrerabiltzeko prestatzeko programa | 110.000 | 147.909 | % 100 | % 134 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Birziklatzeko programa | 145.000 | 354.016 | % 100 | % 244 |
| Balorizazio programa: materiala eta energia | 423.000 | 406.565 | % 100 | % 96 |
| Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa | 0 | 0 | % 100 | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2.894.000 | 3.188.400 | % 97 | % 110 |

*Iturria: Geuk egina.*

Guztira, 136 ekintza gauzatu dira, berez 40 bazeuden ere aurreikusita.

Emaitza horiei erreparatuta, ondoriozta daiteke oso ona dela betetze mailaren balantze orokorra. Programa guztietan gauzatu dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean hartutako konpromiso estrategikoak betetzera bideratutako ekintzak. Behatokiaren programak bakarrik ez du lortu % 100eko gauzatze maila.

# 6 HELBURUEN BETETZE MAILA, 2023. URTEA

Atal honek udal hondakinen sorrerak eta kudeaketak 2023an izan duten bilakaera aztertzen du. Txosten honetan aztertuko dira, batetik, Gipuzkoako 2023. urteko udal hondakinen inbentariotik eratorritako datuak, eta, bestetik, hondakin frakzio horren bilketan eta/edo tratamenduan eragiten duten beste agente batzuek bildutako eta emandako informaziotik eskuratutakoak.

Zehazki, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazleen balioa kalkulatu ahal izateko, Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren Sistema Kolektiboen memoriak eta EAEko hiri hondakinen inbentariotik eratorritako datuak aztertu dira.

## 6.1 Prebentzio helburuak

2023ko datuak aztertu ondotik, eta Gipuzkoako udal hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 318.436 tona hondakin **sortu** direla 2023an, iaz baino % 0,45 gehiago (–1.436 tona).

2022arekin alderatuta, –% 0,92koa da biztanleko eta urteko hondakinen sorreraren aldakuntza: 2022an 431,56 kilo sortu ziren biztanleko, eta 2023an, berriz, 427,55 kilo.

*2. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2022-2023 urteak*

| Sarrera datuak / datos generación | 2022 | | 2023 | | Variacion 2022-2023 Aldaketa |
|---|---|---|---|---|---|
| | Sorrera osoa / Total generación (t) | Kg/biz/urte | Sorrera osoa / Total generación (t) | Kg/biz/urte | |
| **Errefusa / Resto** | 136.286 | *183,87* | 136.422 | *183,17* | % 0,10 |
| **GAIKAKO BILKETA** | | | | | |
| Biohondakina / Biorresiduo | 55.415 | ***74,76*** | 55.789 | ***74,91*** | % 0,67 |
| Papera eta kartoia / Papel y cartón | 40.959 | *55,26* | 40.769 | *54,74* | –% 0,46 |
| Ontzi arinak / Envases ligeros | 24.625 | *33,22* | 25.135 | *33,75* | % 2,07 |
| Kafe kapsulak | 58 | *0,08* | 96 | *0,13* | % 64,50 |
| Beira / Vidrio | 26.757 | *36,10* | 25.806 | *34,65* | –% 3,55 |
| Tamaina Handikoak / Voluminosos | 6.037 | *8,14* | 5.048 | *6,78* | –% 16,37 |
| Arropa / Textil | 3.175 | *4,28* | 3.184 | *4,28* | % 0,30 |
| Sukaldeko olioa / Aceite de cocina | 437 | *0,59* | 425 | *0,57* | –% 2,86 |
| Pilak / Pilas | 79 | *0,11* | 71 | *0,10* | –% 10,35 |
| Bestelakoak / Otros | 26.044 | *35,14* | 25.691 | *34,49* | –% 1,36 |
| Guztira / Total | 183.586 | *247,69* | 182.014 | *244,38* | –% 0,86 |
| | | | | | |
| Sorrera guztia / Generación total | 319.872 | *431,56* | 318.436 | *427,55* | –% 0,45 |

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia*

Udal hondakinen sorrerak behera egin du 2010. urtearekin alderatuta, baina lortutako murrizketa (% 8,6) 2020an erdietsi behar zen murrizketa helburuaren azpitik geratu da (% 10).

*20. taula. Prebentzio helburuen betetze maila, 2023. urtea*

| | | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2025 | 2030 | 2023 | Betetze bidearen balorazioa |
| PREBENTZIOA-01 | Udal hondakinen sorrera murriztea 2010arekin alderatuta | –% 10 | –% 13 | –% 15 | –% 8,6 | ☹ |
| PREBENTZIOA-02 | Hiri hondakinen sorrera mugatzea (EBH gabe) (kg/bizt/urte) | | | 419 kg. /biz/urte | 427,6 kg. /biz/urte | 😐 |
| PREBENTZIOA-03 | Elikagai hondakinen *per capita* sorrera murriztea 2020arekin alderatuta | | –% 25 | –% 50 | e.d. | |
| PREBENTZIOA-04 | Elikagai hondakinen *per capita* sorkuntza murriztea txikizkako salmentaren eta kontsumitzaileen arloan 2030erako, 2020arekin alderatuta | | | –% 50 | –% 41,6 | ☺ |
| PREBENTZIOA-05 | Ontzien sorrera murriztea, 2010. urtearekin alderatuta | | –% 13 | –% 15 | –% 5,7 | ☹ |
| PREBENTZIOA-06 | Ontzi arinen sorrera murriztea, 2019. urtearekin alderatuta | | –% 5 | –% 20 | –% 2,8 | 😐 |
| PREBENTZIOA-07 | Plastikozko poltsa arinen urteko kontsumoaren gehieneko muga (pertsona bakoitzeko poltsa arinen unitateak edo pisuaren arabera adierazitako helburu baliokidea) | 90 | 25 | | e.d. | |

## 6.2 Berrerabiltzeko prestatzeko helburuak

**Berrerabiltzeko prestaketa tasa** hiri hondakin guztien % 1 da. Adierazle hori helburuaren azpitik geratu da, 2020an % 2ra iritsi baitzen, eta urrun dago 2025ean lortu beharreko % 5etik. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak baditu helburu horren emaitzak hobetzeko neurriak, hala nola berrerabiltzeko prestakuntza zentroa.

*21. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko helburuen betetze maila, 2023. urtea*

| | | | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **2020** | **2025** | **2030** | **2035** | **2023** | **Betetze bidearen balorazioa** |
| BERRERABILTZEA-01 | Aparatu handiak berrerabiltzeko gutxieneko prestaketa indizea lortzea | % 3 | | | | e.d. | |
| BERRERABILTZEA-02 | Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako aparatu txikiak berrerabiltzeko gutxieneko prestatze tasa bat lortzea | % 4 | | | | e.d. | |
| BERRERABILTZEA-03 | Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko gutxieneko prestatze indizea lortzea | | % 5 | % 10 | % 15 | % 0,96 | ☹ |

## 6.3 Gaikako bilketarako helburuak

**Gaikako bilketari** dagokionez, azpimarratu behar da datuak batez ere egonkorrak direla, beheranzko joera txiki batekin. Gaikako bilketa orokorra % 57,2koa da, 2022koa baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa.

*3. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak). 2007-2023 urteak*



Kopuru absolututan, materia organikoaren gaikako bilketa nabarmentzen da bereziki. Orotara 55.789 tona sukalde eta inausketa hondakin bildu dira, baita etxeko konpostajera eta komunitateko konpostajera bideratutakoak ere, hau da, urtean 74,9 kg biztanleko.

**Gaikako bilketa eta bereizketa tasa**, GIG1 eta GIG2 guneetan masan jasotako bilketa selektiboaren eta birziklagarrien bereizketaren batura gisa zenbatuta, 20 puntu inguru handiagoa da gainerakoen frakzioa baino, eta % 60,4koa da, 2022an baino ehuneko 0,3 puntu gehiago.

*4. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa + Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2023* vs *2022*




*Iturria*: Gipuzkoako Foru Aldundia

*22. taula. Gaikako bilketako helburuen betetze maila, 2023. urtea*

| | | | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **2020** | **2025** | **2030** | **2035** | **2023** | **Betetze bidearen balorazioa** |
| GAIKAKO BILKETA-01 | Bereizita bildutako udal hondakinen gutxieneko indize bat lortzea, sortutako udal hondakinen guztizko pisuaren gainean. | | % 75 | % 85 | % 50 | % 57,2 | ☺[61] |
| GAIKAKO BILKETA-02 | Pilak eta bateriak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea | % 50 | | | | % 31,5 | ☹ |
| GAIKAKO BILKETA-03 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea, merkatuan sartutako GEEen batez besteko pisuari dagokionez | % 65 | | | | % 43,7 | ☹ |
| GAIKAKO BILKETA-04 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea, horien batez besteko sorrera pisuari dagokionez | % 85 | | | | % 85 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-05 | Fibrozementu frakzioa bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 | | | % 53 | ☹ |
| GAIKAKO BILKETA-06 | Etxeko hondakin arriskutsuak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 | | | % 100 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-07 | Ehunkiak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 | | | % 100 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-08 | Biohondakinak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 (2024) | | | % 100 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-09 | Biohondakinetan desegokien gehieneko ehunekoa mugatzea | | % 20 (2022) | % 15 (2027) | | % 4,9 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-10 | Sukaldeko olioa bereizita bil dadin ezartzea (biztanleen %) | | % 100 (2024) | | | % 100 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-11 | IV. eranskineko E atalean aipatutako plastikozko produktuak bereizita biltzeko gutxieneko indizea lortzea (erabilera bakarreko plastikozko botilak, horien azalak eta tapoiak barne). | | % 70 (2023) eta % 77 (2025) | % 85 (2027) eta % 90 (2029) | | e.d. | |
| GAIKAKO BILKETA-12 | papera, metalak, plastikoa eta beira bereizita biltzea, toki eskumena (biztanleen %) | | % 100 (2022) | | | % 100 | ☺ |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GAIKAKO BI LKETA-13 | Tamaina handiko hondakinak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 | | | % 100 | ☺ |

61 7/2022 Legearen helburua % 50 da 2035erako, eta Gipuzkoak dagoeneko betetzen du hori. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planeko helburuak anbizio handiagokoak dira, eta, 2025eko baliora iristeko, beharrezkoa litzateke mankomunitate guztiek gaur egun gaikako bilketa onena duen mankomunitatean bezainbeste bereiztea. 2030eko helburura iristeko, udalerri guztiek bereizi beharko lukete Gipuzkoako onenak adina.

| | | | Bete beharreko helburuak | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2025 | 2030 | 2035 | 2023 | Betetze bidearen balorazioa |
| GAIKAKO BILKETA-14 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %) | | % 100 | | | % 100 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-15 | Etxeko ontzi guztietatik bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 65 | % 75 | % 85 | % 73,3 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-16 | Beirazko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 70 | % 80 | % 90 | % 86,9 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-17 | Plastikozko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 55 | % 65 | % 75 | % 59,1 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-18 | Zurezko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 30 | % 40 | % 60 | % 91,2 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-19 | Burdina metalezko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 50 | % 60 | % 80 | % 54,7 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-20 | Aluminiozko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 30 | % 40 | % 60 | % 37,3 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-21 | Edarietarako eta elikagaietarako kartoizko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 75 | % 90 | % 95 | % 65,4 | 😐 |
| GAIKAKO BILKETA-22 | Paperezko/kartoizko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 75 | % 90 | % 95 | % 77,2 | ☺ |
| GAIKAKO BILKETA-23 | Sendagai ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 15 | % 25 | % 35 | e.d. | |
| GAIKAKO BILKETA-24 | Plastikozko botilak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea. | | % 70 (2023) eta % 77 (2025) | % 85 (2027) eta % 90 (2029) | | e.d. | |

## 6.4 Birziklatzeko helburuak

2023ko **birziklatze tasa** % 53,9koa da, gainditu egiten du 2020rako % 50eko helburua, eta oso gertu dago 2025erako Europako % 55eko helburutik (bete beharra baino 2 urte lehenago). Horren arabera, Gipuzkoa adierazle horretako lurralderik onena edo onenetakoa da estatua osoan. Hala eta guztiz ere, datuak egonkortzeko/pixka bat jaisteko joera ikusten denez, beharrezkoa da datozen urteetan joera aldatzea, 2025eko birziklatze helburua eta 2030eko % 70ekoa lortzeko.

Erantsitako irudian ikusten den bezala, eta frakzioei erreparatuta, beiraren, paper eta kartoiaren eta ontzien bilketa tasak gainditu egiten du Europako 2025erako helburua.

*23. taula. Birziklatzeko helburuen betetze maila, 2023. urtea*

| | | | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2025 | 2030 | 2035 | 2023 | Betetze bidearen balorazioa |
| BIRZIKLATZEA-01 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak balorizatzeko gutxieneko indizea lortzea | % 75-% 85 | | | | % 55,7 | ☹ |
| BIRZIKLATZEA-02 | Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko gutxieneko indizea lortzea (%) | % 55-% 80 | | | | % 46,6 | 😐 |
| BIRZIKLATZEA-03 | Udal hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko gutxieneko prestaketa indizea lortzea | | % 55 | % 70 | | % 53,9 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-04 | Ontzi guztien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | | % 70 | | % 73,3 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-05 | Beirazko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 70 | % 75 | | % 86,9 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-06 | Paperezko eta kartoizko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 75 | % 85 | | % 76,3 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-07 | Burdina metalezko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 70 | % 80 | | % 78 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-08 | Aluminiozko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 50 | % 60 | | % 69,6 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-09 | Plastikozko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 50 | % 55 | | % 64,3 | ☺ |
| BIRZIKLATZEA-10 | Zurezko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea | | % 25 | % 30 | | % 91,2 | ☺ |

## 6.5 Balorizazio energetikoko helburuak

**Balorizazio energetikoa** izan dezaketen hondakinak —hala nola bioegonkortua— balorizazio energetikora bideratzen dira oso-osorik, maila gailenagoko planek sustatzen duten bezala. Balorizazio energetikoaren datu globala gutxituz joango da birziklapena handitzen den heinean.

*24. taula. Balorizazio energetikoko helburuen betetze maila, 2023. urtea*

| | | e beharreko helburuak | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2025 | 2030 | 2035 | 2023 | Betetze bidearen balorazioa |
| BALORIZAZIOA-01 | Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko gutxieneko balorizazio indizea lortzea | | % 15 | % 15 | | % 44,2 | 😐 |
| BALORIZAZIOA-02 | Errauste eta baterako errauste instalazioetan sortutako material bioegonkortuaren balorizazio energetikoaren gehikuntza (baliorik zehaztu gabe) | | | | | % 100 | ☺ |

## 6.6 Deuseztatzeko helburuak

Azkenik, azpimarratu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoak gaur egun ez duela isurtzen batere hondakinik **deuseztatzera**, aurretik tratatu gabe. Hondakinak tratatzeko plantetan gertaturiko baztertzeetatik sorturiko isurketa portzentajea % 2,6 da, 2030erako planean helburu gisa ezarritako gehieneko % 10 baino askoz txikiagoa.

*25. taula. Deuseztatzearen betetze maila, 2023. urtea*

| | | | | | | Zer moduz goaz? | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2025 | 2030 | 2035 | 2023 | Betetze bidearen balorazioa |
| DEUSEZTATZEA-01 | Aurretiazko tratamendurik gabe isuritako hondakin kopurua mugatzea (t) | 0t (2019) | | | | 0 t | ☺ |
| DEUSEZTATZEA-02 | Udal hondakinak deuseztatzeko indizea mugatzea | % 35 | | % 10 | | % 2,7 | ☺ |

# 7 GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudian xedatutakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari genero inpaktua ebaluatzeko prozedura ezarri zitzaion. Plana idaztean, aldez aurreko ebaluazio bat egin zen. Ebaluazio horretan, generoari dagozkion alderdiak identifikatu ziren, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko ekintzak eta neurriak aurreikusi ziren (*43. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko jarduerak, genero egokitasuna, eta ekintza gauzatzeak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izango duela bermatzeko orientabideak*).

Atal honetan 2023an egindako ekintzen eta neurrien betetze mailari buruzko azterketa bat jasotzen da, taula horretan jasotakoa kontuan hartuta. Hona hemen laburbilduta:

*26. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren ekintzak taldekatzea, ekintza horiek emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango dutela bermatzeko neurrien arabera.*

| Ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango duela bermatzeko orientabideak | Ekintza |
|---|---|
| Emakumeentzako ekintza positiboak I+G+Ban, genero arrakala oso handia bada | PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5 |
| Osaera orekatua sexuaren arabera | BEHATOKIA-4/BEHATOKIA-6 |
| Emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen duten edukiak | PREBENTZIOA-3 |
| Enplegu orekatua sexuaren arabera | PREBENTZIOA-11 |
| Emakumeen eta gizonen gaineko inpaktuaren azterketa | PREBENTZIOA-1/PREBENTZIOA-5/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3/BIRZIKLATZEA-2 |
| Sexu bakoitzak erosketan duen eginkizunari buruzko azterketa | PREBENTZIOA-14/PREBENTZIOA-16/PREBENTZIOA- 17 |
| Emakumeen enplegu bermea I+G+Baren arloan | BALORIZAZIOA-1 |
| Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzea deialdian eta esleipenetan, baldintza berdinetan | PREBENTZIOA-8 |
| Erabiltzaileen posizioa identifikatzea, emakumeak edo gizonak diren kontuan hartuta | GAIKAKO BILKETA-1 |
| Zerga pizgarriek emakumeengan eta gizonengan eta bien arteko berdintasunean duten eragina identifikatzea | PREBENTZIOA-19 |
| Genero inpaktuak enpleguan, osasunean, emakumeek eta gizonek hondakinen sorreran eta hautaketan duten eragina eta abar identifikatzea. | BALORIZAZIOA-2 |
| Genero rolaren hausturan eragiten duten irudiak (emakumeak tradizioz maskulinoak izan diren roletan eta gizonak tradizioz femeninoak izan diren roletan) | BEHATOKIA-8 |
| Emakumeen eta gizonen inplikazio erantzunkidea | PREBENTZIOA-18/PREBENTZIOA- |

| | |
|---|---|
| | 6/PREBENTZIOA-9/GAIKAKO BILKETA-1/GAIKAKO BILKETA-4 |
| Baldintza agirietan berdintasun klausulak sartzea | PREBENTZIOA-22/PREBENTZIOA-4/PREBENTZIOA-7/BIRZIKLATZEA-4 |
| Sexuaren aldagaia edo eremua sartzea pertsonen informazioa biltzen duten datu baseetan | BEHATOKIA-2 |
| Datuak sexuaren arabera bereizita dituzten txostenak, pertsonei buruzkoak badira | BEHATOKIA-3 |
| Hizkuntza inklusiboa liburuxketan, dokumentazioan, karteletan... | BEHATOKIA-8 |

| Ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango duela bermatzeko orientabideak | Ekintza |
|---|---|
| Informazio hauek erakustea: enpleguko genero arrakalaren murrizketan izan duen eragina, emakumeei emandako beken ehunekoa, emakumeek I+G+Ban izan duten parte hartzearen ehunekoa, hizkera ez-sexistaren erabilera maila, irudi ez-sexistak zein mailatan erabili diren, genero rolen hausturan eragiteko gaitasuna duten irudiak zein mailatan erabili diren, eta baliabide fisikoak sortzean eta hautatzean gizonek izan duten erantzunkidetasuna. | BEHATOKIA-5 |
| Emakumeen elkarteetako eragile gisa parte hartzea | BEHATOKIA-7 |
| Emakumeen parte hartzea enpresetan, nazioartekotze proiektuetan | PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5 |
| Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua hizlari gisa, parte hartzaile gisa... | BEHATOKIA-8 |
| Espezialistaren edo genero ikuspegia aplikatzen dakiten pertsonen presentzia | BEHATOKIA-4/BEHATOKIA-6 |
| Herritarren inplikazioa eta, bereziki, emakumeen zeregina nabarmentzea | BEHATOKIA-9/BIRZIKLATZEA-6 |
| Hizkera berrikustea eta erabilera ez-sexistaren irizpideetara egokitzea | BEHATOKIA-2/BEHATOKIA-3/PREBENTZIOA-10/PREBENTZIOA-13/GAIKAKO BILKETA-1 |
| Plan estrategikoan genero ikuspegia transbertsalizatzea | BIRZIKLATZEA-5 |
| Emakumeek eta gizonek gizartean duten zereginaren ikuspegi tradizionala hausten duten irudiak erabiltzea | BEHATOKIA-2/BEHATOKIA-3/PREBENTZIOA-10/PREBENTZIOA-13 |
| Irudien erabilera eta hizkera ez-sexista | BEHATOKIA-7/PREBENTZIOA-14/PREBENTZIOA-16/PREBENTZIOA-17/PREBENTZIOA-18/PREBENTZIOA-20/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5/GAIKAKO BILKETA-4 |
| Informazioa sexuaren arabera bereizita erabiltzea, emakumeen eta gizonen eginkizun potentziala identifikatzeko | BALORIZAZIOA-2 |
| Hizkera ez-sexista erabiltzea, bai eta genero rolak hausten eragiten duten irudiak erabiltzea ere | BIRZIKLATZEA-5 |
| Genero ikuspegia erabiltzea analisiaren interpretazio esparru gisa, emakumeen eta gizonen eginkizun desberdinen kausak identifikatzeko eta, ondoren, erabaki informatuak hartzeko. | BALORIZAZIOA-2 |
| Desfileetan tamaina estandarreko modeloak erabiltzea | PREBENTZIOA-2 |
| Jardueretan genero arrakala murrizten dela zaintzea | PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5 |
| Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua zaintzea, bai hizlari gisa, bai parte hartzaile gisa... | BEHATOKIA-7 |
| Enpleguan genero arrakalak areagotzen ez direla zaintzea | BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1/BIRZIKLATZEA-1 |

Aipatu behar da ekintza batzuk ez direla ondo ebaluatu, ez zirelako egokitzat jo genero ikuspegitik (BEHATOKIA-10, PREBENTZIOA-21, GAIKAKO BILKETA-2 eta DEUSEZTATZEA-1); dela 2023an exekutatu behar ez zirelako (PREBENTZIOA-12, GAIKAKO BILKETA-3, BIRZIKLATZEA-1 eta BIRZIKLATZEA-3); dela 2023. urtea baino lehen amaitu direlako (PREBENTZIOA-15, PREBENTZIOA-19, BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4 eta DEUSEZTATZEA-2).

Azken urteotan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako ekintzak gauzatzea premisa batekin definitu da: neurri bakoitzean sexu bakoitzak egiten duen ekarpena optimizatzea. Prebentzio programaren ekintzetatik hasi eta balorizazio programaraino.

Zehazki, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra gauzatzeko aldian, premisa hauek jorratu dira:

· Sexu osaera orekatua duten bileren deialdiak sustatzea (mahaiak, batzordeak, lantaldeak...).

· Baliabideetarako irispidean eragitea, eskura izan ditzaten bai emakumeek, bai gizonek; hori guztia lortzeko, askotariko bideak balia daitezke, hala nola sortzen den enplegua, egiten diren prestakuntza, bekak, ematen diren aintzatespen eta sariak, antolatutako ponentzia eta hitzaldiak, egiten diren dirulaguntza eta kontratuak, lizitazio pleguak (baldintza agirietan berdintasun klausulak txertatuz, adibidez) eta abar.

· Genero rolen hausturan eta emakumeen eta gizonen rolaren ikuspegi estereotipatuetan eragiten saiatzea, udal hondakinak sortzeari eta tratatzeari dagokionez, bai egin diren kanpainetan, eta beste horrenbeste egitea, orobat, prestakuntza ekintzen edukietan, eta kontsumo ohiturak, hondakinen hautaketa, birziklatzea eta abar aldatzeko egin diren jarduera guztietan.

· Sentsibilizazio kanpainen diseinuan genero rolen hausturan eragina duten irudiak zaintzea (emakumeak tradizioz maskulinoak izan diren egitekoetan, eta gizonak tradizioz femeninoak izan diren egitekoetan). Edo hizkera ez-sexista erabiltzea karteletan, liburuxketan eta abarretan, eta hizkuntza inklusiboa bultzatzea.

Hona hemen 2023an egindako ekintzen adibide batzuk:

· *BEHATOKIA-8.1 Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.* Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan garatutako ekintzak askotarikoak dira, eta guztiek dute potentzial handia emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko, hala nola egindako ekitaldietan hizlari eta parte hartzaile gisa, hizkuntza inklusiboa erabiliz liburuxketan eta sortutako karteletan, eta genero rolak hausten dituen material grafikoa baliatuz. Egindako ahaleginaren ondorioz, 2023an emaitza onak ikusi dira puntu horri dagokionez:

  · Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioan 40 emakume eta 58 gizon izan ziren.
  · GK Recycling karpara joan ziren gizonen presentzia emakumeena baino apur bat handiagoa izan zen, baina betiere % 40-60 berdintasunezko ordezkaritzaren irizpidearen barruan.
  · Proiektuaren emaitzen aurkezpen jardunaldira 24 emakume eta 26 gizon joan ziren.

· *PREBENTZIOA-2.5: GK Green Fashion klusterrak Be Veggie! azokan parte hartu zuen* 2023ko edizio honetan 5 enpresak parte hartu zuten, guztiak emakumeak.

· *PREBENTZIOA-8.1: Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa*. Oinarri arautzaileetan eta deialdian txertatzen zen genero ikuspegia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, balorazio irizpideak baliatuz eta oinarri arautzaileetan ezarritako pertsona fisiko onuradunen betebeharren bidez. Azken urteetan ekonomia zirkularraren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko onuradun izan diren emakumeen kopurua handiagoa izan da gizonena baino, urtekako banaketa honek erakusten duen bezala.

*27. taula. Ekonomia zirkularraren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko GFAren beken onuradunak (2019-2023)*

| | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakume kopurua | 3 | 4 | 2 | 3 | 1 |
| Gizon kopurua | 1 | 1 | 3 | 2 | 2 |

· *PREBENTZIOA-10.15: Gure planeta zaintzen: Elikagaiak alferrik galtzea, jasangarritasuna eta klima aldaketa*. 2023an 53 tailer eman dira ikastetxeetan, eta 320 neskak eta 339 mutilek parte hartu zuten.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere badira datozen urteetan landu beharreko hobekuntza alderdiak. Adibidez, sexuaren arabera bereizitako datuak bildu eta ustiatzeari dagokionez. Oraindik ez dugu behar adina informazio sexuaren arabera bereizita, eta, beraz, Gipuzkoako Hondakinen Behatokiak aurrera jarraituko du pertsonei buruzko hondakinen sorrera eta kudeaketaren adierazleak sexuaren arabera bereizita biltzen —betiere hala biltzea posible denak eta pertsonei zuzenean eragiten dietenak—.

# C ZATIA: ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

## 8. Ondorioak

**2023rako aurreikusitako ekintzen betetze maila** kontuan hartuta, ondorioztа daiteke balantze orokorra oso ona dela, gauzatze maila % 97koa baita. Programa guztiek % 100eko betetze maila lortu dute, Behatokiaren Programak izan ezik, haren gauzatze maila % 78koa baita.

Programa hori jakintza programatzat hartzen da, eta han garatzen dira hondakinak sortzeari eta kudeatzeari buruzko informazioa eta datuak ezagutzeko eta kontrolatzeko jarduerak. Jakintza eta jardunbide egokiak zabaltzeko ekintzak jasotzeaz aparte, mankomunitate eta udalerriekin eta gainerako eragileekin lankidetza eta adostasunerako esparru bat finkatzea bilatzen da. Aurreikusitako ia ekintza guztiak gauzatu ahal izan dira. Salbuespena dira, batez ere, jardunbide egokiak hedatzeko ekintzak.

2023ko datuak aztertu ondotik, eta Gipuzkoako udal hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 318.436 tona hondakin **sortu** direla 2023an, iaz baino % 0,45 gehiago (–1.436 tona).

Murrizketa bide positiboa ikusten bada ere, oraindik ere gogotik lan egin behar da Prebentzio Programan, 2025ean udal hondakinen sorrera % 13 murrizteko helburua lortu ahal izateko (2010arekin alderatuta). 2023an, murrizketa hori % 8,6koa izan zen.

**Berrerabiltzeko prestaketa tasa** hiri hondakin guztien % 1 da. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak baditu helburu horren emaitzak hobetzeko neurriak, kontuan izanik 2025. urtean % 5eko balioa izan behar duela. Datozen urteetan, neurri horiek martxan jarriko dira eta indize horretan aldaketa nabarmena ekarriko dute.

**Gaikako bilketa eta bereizketa tasa**, GIG1 eta GIG2 guneetan masan jasotako bilketa selektiboaren eta birziklagarrien bereizketaren batura gisa zenbatuta, 20 puntu inguru handiagoa da gainerakoen frakzioa baino, eta % 60,4koa da, 2022an baino ehuneko 0,3 puntu gehiago.

2023ko **birziklatze tasa** % 53,9koa da, 2025erako Europako % 55etik oso gertu. Nabarmentzekoak dira beira, papera eta kartoia, eta ontzien frakzioak, 2023an jada gainditzen baita Europak 2025erako ezarritako helburua.

Bestalde, **balorizazio energetikoa** izan dezaketen hondakinak —hala nola bioegonkortua— balorizazio energetikora bideratzen dira oso-osorik, maila gailenagoko planek sustatzen duten bezala.

Isurpenei dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoak gaur egun ez du isurtzen batere hondakinik **deuseztatzera** bideratuta, aurretik tratatu gabe. Hondakinak tratatzeko plantetan gertaturiko baztertzeetatik sorturiko isurketa portzentajea % 2,6 da, 2030erako planean helburu gisa ezarritako gehieneko % 10 baino askoz txikiagoa.